

Goienkaria

ASTELEHENKO

2009ko martxoaren 9a > Astelehena > VII. urtea > 224. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Nafarroako erreinua zen herria, hizkuntza eta nortasun propioa zituen"

Iñaki Sagredo
Historialaria > 09



G2a

'Kantari',
berrikuntzekin
eta indartsu > 29

ASTEKO GAIA
Hiesaren test azkarra egiteko,
debagoiendarrak Eibarrera > 03

FUTBOLA
Amaiak Bat garaituta, UDA
saikapeneko bigarren postuan > 22

SASKIBALOIA
Tabirakoren kontra irabazi ostean,
MU maila eusteko bide onean > 24

ALDARRIKAPENA > EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumeen eskubideen alde egiteko, ekitaldi ugari ibarrean

TAKARRARAN Udaleko Emakume Sailak antolatuta, lehenengoz Takarraran lasterketa egin zuten Arrasaten

KALE AGERRALDIAK Arrasaten manifestazio jendetsua egin zuten domekan; eta Oñatin, berriz, elkarretaratzea

OSPAKIZUNA Antzezlanak, ikus-entzunezkoak, berbaldiak eta beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte asterako > 04

MERKATARIAK > SALTOKIAK

Merkealdi aukerak asteburuan

Arrasaten eta Bergaran beherapenak izan dituzte, merkatarien ekimenez > 12

Omenaldia egin zioten Isaias Carrascori, ETak hil eta urtebetera

Herenegun, zapatua, ETak Arrasateko Alderdi Sozialistako zinegotzi ohi Isaias Carrasco tiroz hil zuenaren urteurrena bete zen. Egun horretan, erailldako zinegotzi ohia omendu zuten haren senitarteko, lagun eta alderdikideek Arrasaten.

Navas de Tolosa kalea izan zen omenaldiaren lekuko; hain justu, Isaias Carrasco tirokatu zuten tokia eta haren bizitokia zena. Omenaldian PSE-EEko ordezkari askok esku hartu zuten, tartean idazkari nagusi Patxi Lopezek. > 05



PSE-EE Isaias Carrascoren alargunarekin eta alabarekin batera, PSE-EEko ordezkari ugari izan ziren, tartean Patxi Lopez.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 03
Ekonomia > 06
Auzoak > 07
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 10
Herriak > 11-20
Kirola > 21-28
Kultura > 29-33
Saikatuak > 34-35
Telebista-irratia > 37
Berri-zakua > 38-39
Azkena > 40

GATZAGA > ENPRESAK

Jakionen etorkizuneko erronkak

Baserritarren fruituak kontserbatzen dituen Gatzagako enpresak plan estrategikoa aurkeztu du > 11

P.F.F.ren gaineko deskontua stockean dauden Ford autoetan, Fiesta berria, Ka berria eta Kuga izan ezik. Hilabete bukaera arte edo izakinak agortu arte. Ilkusten den modeloa ez dauka zertan izan eskaintzen dena.

Prezio horiekin oso gutxi iraungo dute.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbides, z/g
ARRASATE


Feel the difference
Ford

%20 ko deskontua.




Liburuak opari.
Nahi?

Zoaz 7. orrialdera



75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.

 **MERKATUA.net** Debagoieneko denda



OSASUNA > GIZA INMUNOESKASIAREN BIRUSA

Hiesaren test azkarrak hainbat farmaziatan egin ahal izango dira

EIBAR Gipuzkoan sei farmaziatan egin daiteke proba; guretik gertuen dagoen botika Eibarkoa da

ERRAZA Testa odol tanta batekin egiten da eta 15 minutu baino ez dira behar emaitza jakiteko

ANONIMOA Pazienteek ez dute inolako identifikaziorako daturik eman behar, proba emateko baimena baino ez

ARGIBIDEAK Farmazialariek arrisku praktiken eta faktoreen gaineko informazioa emango dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Martxoan ipini du abian Jaurlaritzako Osasun Sailak Euskadiko Farmazialarien Kontseiluaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazialari Elkargo Ofizialen lankidetzarekin Europan aitzindaria den egitasmoa: Giza Inmunoeskasiaren Birusaren (GIB) test azkarrak farmazietan egitea. EAEko 20 botika daude programan: hamabi Bizkaian, sei Gipuzkoan eta bi Araban; guretik gertuen dagoena Eibarren dago, Amaña auzoan, Ziriako Agirre kalean.

GIBaren antigorputzen presentzia detektatzen duen proba birusaren eramailearekin edo izan daitekeenarekin sexu harremanak eduki dituenak edo drogak injektatzeko xiringak edo beste tresnak partekatu dituenak egitea gomendatzen dute. "Proba oso erraza da. Atzamarrean ziztada txiki bat egin eta odol tanta batzuk ateratzen dira. Tira errektibo baten gainean ipintzen da. 15 minutuan esango digu emaitza positiboa ala negatiboa den", azaldu digu Eibarren testak egiten dituen farmaziako Celia Barandelak. Proba farmazialariak berak egiten du, eta testaren prezioa bost eurokoa da, erabiltzen den materialaren balioa, hain zuzen ere.

INFORMAZIOA PAZIENTEEI

Emaitza jakin arteko denbora aprobetxatzen du farmazialariak pazientearekin berba egiteko. Celia Barandelaren esanetan, "arrisku faktoreen edo arrisku praktiken gainean egiten dugu berba. Azaltzen diogu baita ere zer den *leiho-aldia*. Azken arrisku praktikatik testak antigorputzak detektatu bitarteko tartea da, hiru hilabetekoa. Emaitza fidagarria izan dadin arrisku praktikatik hiru hilabete pasa behar dira gutxienez. Lehenago eginez gero, errepikatu beharra dago. Hortaz, galdeketa egiten diegu jakiteko noiz izan duen azken arrisku praktika", dio Barandelak.

Emaitza izan daiteke negatiboa edo positiboa. Negatiboa bada pazienteak ez dago GIBak kutsatuta; positiboa bada infektatuta egon daiteke eta beste analisi zehatzago bat egin beharko du osasun zentroan baieztatzeko.

IDENTIFIKAZIOARIK EZ

Farmazietan testa egin aurretik ez da inolako daturik eskatuko, analisisa egiteko baimena sinatzea besterik ez. Celia Barandelaren



Debagoiengan ez dago hiesaren test azkarra egiteko aukerarik; gertukoena Eibarko Amaña auzoko Barandela botika (argazkian) da.

IRATI AGIRREAZALDEGI

esanetan, "anonimoa da testa, baina uste dugu Debabarrenetik kanporako jendea ere etorri dela Eibarrera. Jendeak nahiago du euren herritik kanpo egitea, eta bada esan digunik nahiago duela farmaziara etortzea bere sendagilearengana joatea baino".

Programa abiatu zenetik jende asko joan da proba egitera, "uste genuena baino gehiago bai behintzat. Galdezka etorri diren artean askotariko jendea aurkitu dugu. Batzuek oso ondo dakite zein diren arrisku faktoreak eta praktikak; beste batzuek,

alderantziz, ez dakite ezertxo ere. Osasun hezkuntza egiten ere ahalgintzen gara. Askori esan diegu praktika arriskutsuen ondorioak ez direla hiesa edo haurdunaldia bakarrik, bestelako gaitzak ere har daitezkeela", esan digu farmazialariak.

Informazio faltak, ezjakintasunak edo pentsaera okerrek tabu bihurtzen duten gaitzaren aurrean, hona hemen beste irtenbide bat, lehen pausurako bai bederen. Izan ere, Osasun Sailetik diote GIBA duten 10.000 pertsonatik 2.000k ez dakiela.

ZER DIOTE IBARREKO FARMAZIALARIEK?

Maribi Anitua

ARETXABALETA

"Jendea farmaziara sendagilearengana baino errazago etortzen da, eta horrek erraztuko du bidea"

Interesgarria da, baina gure ibarrean jende mordo bizi den arren, ez dago hemengo botiketara test hori egiteko aukerarik. Jendea farmaziara erraz etortzen da, sendagilearengana baino errazago beharbada, hortaz, horrek erraztuko du bidea. Guregana jendea ez da testaren gainean galdetzeraz etorri, egin nahi duenak badakielako nora jo edo badelako jendea arriskua izan arren, ezertxo ere egiten ez duena. Test hori farmazia gehiagotara zabaldu beharko litzateke, baina ez dakigu hala izango den ala ez. Aukera izanez gero, ez dakigu etorriko liratekeen ala ez, baina oraingoz aukerarik ere ez daukate.

Iñigo Zabala

BERGARA

"Proba egin daitekeen farmazien zerrenda eskura izanez gero, agian beldurrez daudenak ausartuko dira"

Gutxi gorabehera Euskal Herrian egon daitezke 2.000 pertsona kutsatuta ez dakiten birusa dutela. Hortaz, proba egiteko aukera izatea oso ondo iruditzen zait. Gainera, farmaziak jendearengandik oso gertu dauden osasun guneak dira, testa oso azkarra da eta anonimatoa gordetzen da. Jende asko egon liteke beldurrez, nora jo jakin gabe eta proba egin daitekeen farmazien zerrenda eskura izanez gero, beharbada ausartuko dira. Ez dakigu eskaera zenbatekoa izango den. Ez dago zertan etxepan testa egiteko aukera ematen duen farmazia izatea, inguruan bat izatea nahikoa da; gure kasuan Eibarren dago.

Juan Antonio Irizar

ARRASATE

"Gipuzkoan, Donostia aldeko farmazietan egin daiteke testa; eta gure kezka da gure ibarra ahaztuta utzi dutela"

Programa pilotua farmazia batzuetan egin dute Gipuzkoan, Donostia aldean, eta gainontzeko ez digute egitasmoaren berri eman. Baliteke aurrerantzean beste farmazietara zabaltzea eta guk ez genuke arazorik izango gurean horrelako testak egiteko. Gainera, oso egokia iruditzen zait jendea erraztasunak ematen zaizkiolako, izen-abizenik ez dutelako eman behar, eta proba azkarra delako. Metadonarekin egin zen programa bat farmazietan eta bailara bakoitzean puntu bat zegoen. Hiesaren testarekin, ordea, toki gutxi batzuetan egin daiteke eta gure kezka da gure ibarra ahaztuta utzi dutela.

ALDARRIKAPENA > EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Gero eta ekitaldi gehiago ibarrean, emakumeen eskubideen alde egiteko



Lehenengoz Takarraran lasterketa egin zuten Arrasaten. J.A.



Emakume artisauen eta baserritarren azoka. J.A.



Arrasaten kale agerraldi jendetsua egin zuten iluntzean; eta horren ostean, ekitaldia. JOSETXO ARANTZABAL.

Arrasaten Takarraran lasterketa, azoka eta kale agerraldia egin zuten domekan

Antzezlanak, erakusketak eta berbaldiak egingo dituzte ibarrean

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Atzo, domeka, Emakumeen Nazioarteko Eguna, ospatu zuten mundu osoan; eta Debagoiengan gero eta ekitaldi gehiago egingo dituzte horren inguruan.

Eguna martxoaren 8a bada ere, joera da emakumeen aldeko ekitaldiak egun gehiagotan egingo. Hala egin dute aurten ibarreko udal gehienek. Horien artean Arrasate nabarmendu beharra dago udalerririk horretan atzorako, domeka, inoiz baino ekitaldi gehiago egingo zirela.

BASERRITARRAK ETA ARTISAUAK

Domeka goizetik eguerdira, urtero ohitura duten moduan, emakume baserritarren eta artisauen azoka egin zuten Seber Altube plazan. Goizean ez zen jende asko ibili, baina eguerdian herritar asko batu ziren arbigarak, babarrunak edota ogiak erostera; eta baita artisautza lanak ikusi eta erostera ere.

TAKARRARAN LASTERKETA

Ia ordu berean, Udaleko Emakume Sailak sortu berri duen Takarraran lasterketari hasiera eman zioten Seber Altubetik oso gertu, Portaloian bertan. Emakumeendako lasterketa da, eta harrera oso ona izan zuen. Parte hartzaile nahiko batu ziren. Arrasateko, Aretxabaletako eta inguruko beste herri batzuetako 50 bat lagun, eta tartean lan baldintzengatik protestan dauden Iturbide egoitzako langileak ere. Hiru bat kilometroko ibilbidea

egin zuten Arrasateko erdigunetik barrena. Hellen Campbell izan zen irabazlea.

KALE AGERRALDIA ETA EKITALDIA

Horrez gain, eguerdian Arrasateko eta inguruetako hainbat emakume herri bazkaria egin zuten Arrasateko Uarkape jate-txean.

Iluntzean, ordea, kale agerraldia egin zuten Arrasateko kaleetan zehar –antolatzaileen esanetan, inoiz baino jende gehiagok esku hartu zuen–; eta horren bukaeran ekitaldia egin zuten Herriko Plazan. Lehenik eta behin, Ain 1 taldeak musika eta dantza emanaldia egin zuen. Horren ostean, Arrasateko hainbat emakume ezagunei egindako galdeketekin osatutako bideoa eman zuten. Eta bukatzeko, Oihana Aranburu zinegotziak eta Sagra Lopez militante feministak komunikatu bat irakurri zuten.

BESTELAKO EKITALDIK IBARREAN

Baina Arrasate ez da emakumeen eskubideen alde ekitaldiak antolatu dituen herri bakarra. Oñatin elkarretaratzea egin zuten atzo eguerdian herriko plazan; eta Eskoriatzako Amuska emakumeen elkarteak Burgosera irteera egin zuten.

Bergaran, berriz, atzo *Mari-menditarrak* ikus-entzunezkoa eman zuten; eta bihar, astelehena, txokolate-jana egingo dute Artatse elkarteak, 17:00etan.

Aretxabaletan, eguenean, hilaren 12an, emakume pakistandarren integrazio prozesuaren gaineko berbaldia egingo dute kultura etxean, 15:00etan; eta Aretxabaletako kultura etxean, *Emakumeak aniztasunean* izeneko erakusketa ikusgai dago hilaren 22ra bitartean. Ez hori bakarrik, Aretxabaletan jarraituta, martitzenean, hilaren 10ean, ikus-entzunezkoa eta solasaldia egingo dute Enma Larretarekin; eta eguaztenean, hilaren 11n, *La Resistens* taldeak *Metidas en harina* antzezlanaren egingo du Arkupe kultura etxean.



Garbittu

Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak



PSE-EEko idazkari nagusi Patxi Lopez, Manuel Huertas eta Carrascoren emazte eta alabak, lore eskaintzan. JOSETXO ARANTZABAL

OMENALDIA > ISAIAS CARRASCO GOGOAN IZAN ZUTEN

Lore eskaintzarekin omendu zuten Carrasco, ETak hil eta urte betera

Duela urte bete ETak tiroz hil zuen tokian bertan egin zioten lore eskaintza; haren senitartekoek politikariak izan zituzten babesa ematen

MIREN ARREGI > BERGARA

Martxoaren 7an, zapatua, urtea bete zen ETak tiroz Arrasateko Alderdi Sozialistako zinegotzi ohi Isaias Carrasco hil zuela. Urteurrenean, eraildako zinegotzi ohi omendu zuten haren senitarteko, lagun eta alderdikideek.

Navas de Tolosa kalea izan zen omenaldiaren lekuko; hain justu, Isaias Carrasco tirokatu zuten tokia eta haren bizitokia zena. Egurdiko hamabietan eta euri-pean egin zioten lore eskaintza Carrascori, eta eraildako zinego-

tzi ohiaren alaba Sandra Carrasco omenaldia bere aitari eskainitakoa ez ezik terrorismoaren biktima guztiei eskainitakoa zela adierazi zuen.

Carrascoren emazte, seme-alaba, arreba eta gainontzeko senitartekoek, Alderdi Sozialistako euskal exekutibako kideak eta Arrasateko zinegotziak izan zituzten lagun. Oinez egin zuten Navas de Tolosa kalean barrena aurrera, lora sortak eta arrosak eskutetan, iaz data berdinean Carrasco hil zuten tokiraino bertaraino.

Han, lurrean, hunkiturik eta negar malko artean, lora sortak eta arrosak eskaini zizkioten Isaias Carrascori.

POLITIKARIEK ERE BAT

Aurpegi ezagun ugari hurbildu zen zapatuan Arrasatera, hala nola Arrasateko PSE-EEko, EAJko eta PPko zinegotziak. Baina, horiei, PSE-EEko Euskal exekutibako kideek kendu zieten protagonismoa. Hala nola, Patxi Lopez, Manuel Huertas, Migel Buen, Rafaela Romero, Elvira Kortajarena, Charli Prieto edota Eduardo Madina, izan ziren omenaldian. Gainera, ETak azken atentatuan hil zuen Iñaxio Uriaren senitartekoak ere izan ziren Carrascoren familia laguntzen.

Lore eskaintzaren ostean, Patxi Lopezek, PSEko idazkari orokorrak, eta Carrascoren alaba nagusienak hartu zuten hitza. Lopezek esan zuen Carrascoren "delitu bakarra askatasuna eta sozialisten ideiak defendatzea" izan zela. Gaineratu zuen hura hil zutenak inoiz baino ahulago daudela eta isilarazi gura izan dituzten sozialistak eta demokratik inoiz baino indartsuago: "Esango nuke, joan den igandeko hauteskundeak horren adierazle garbia direla".

etxeko leihotik



Inazio Arregi > 'zuzen@goiena.com'

Bost ogerleko...

Joan dira hauteskundeak. Herriak eman du bere hitza boto nulu eta guzti. Politikoei dagokie orain herri honen errealitate soziologikoari jaramon egin ala paso egitea. Ez dira erabaki errazak. Kanpainan zehar oso apustu gogorak entzun ditugu. Orain datoz zorabio eta bertigoak. Ez du lan erraza izango bakarrik gobernatzeko ausartzen denak.

Herri honen ohiko arazoei krisi ekonomikoarenak gehitzen zaizkie orain. Administrazioen aurrekontuetan murrizketak. Zergen bidez jasotakoa beherantz (3.000 enpresek eskatu omen dituzte zergen ordaintzen atzerapenak Gipuzkoan bakarrik); enpresak geroz eta finantzazio arazo larriagoekin, eta administrazioa geroz eta beranduago dabil ordaintzen enpresei; Euskal administrazioek 500 milioi euro baino gehiago sor dizkiete enpresei. Zerrenda bukaezina da.

Ez naiz hauteskudeez gehiago luzatuko, ni baino analista iaioagoak non-nahi daudelako. Garbi dudana da egoera hau ez dela alderdi bakar batek kudeatzekoa. Gehiengo egonkorrek beharko dira. Norzuk osatuta? PSOEek ez ditu aukera jakin batzuk lehia elektoraletik kanpoan utzi honen ondorioekin kikiltzeko.

Zein izango da bigarrena? Normalean kale egiten dut. Bost ogerleko...

Ez. Galdu egingo ditut eta ez zait dirurik geratuko Valenziara finalera joateko.

"Gehiengo egonkorrek behar dira, eta ez alderdi bakarrak kudeatzea"

> **Emakumeen alde**
Martxoaren 8a ospatu dute (dugu?) emakumeek gurean eta leku askotan. Ohore, duela mende bat, eta ondoren, emakumeen eskubide zibilen alde egin duten guztiei. Oraindik lan asko dago egiteko, ez etsi.

> **Selamha**
Selamha-ren kasua irakurri dut. 14 urterekin 40 urteko senide batekin ezkontzera derrigortua dagoen neskatila. Harriak hiltzeaz mehatxatua dago, gainera. Ikaragarria! Oraindik lan asko dago egiteko.

ESANAK

"Lehendakari ateratzen banaiz, ez dugu terrorismoari eta terroristei apologia egiteko espazio publikorik onartuko"

Patxi Lopez > Idazkari Nagusia

"Omenaldi hau ez da nire aitari eskainitakoa solik; terrorismoaren biktima guztiei eskainitakoa da"

Sandra Carrasco > Alaba



JONE INUNTZIAGA

Lur-jausia gertatu zen eguenean Aramaion

Joan den asteko euri jasak tarteko, Aramaioko Matxinkale inguruan, lur-jausi bat gertatu zen joan den eguenean. Ondorioz, Ametzurako bidea eta Matxinkale itxi behar izan zituzten. Asier Agirrek, Aramaioko alkateak, adierazi du egoera aspalditik dela kezagarria gunehorietan eta gaur astelehena joko dutela Arabako Foru Aldundira diru laguntza eske.

ENPRESA > KONKURTSO LEGEA

Orni: abendutik kobratzeke langileek eta enpresa Konkurtso Legean murgilduta

Abendutik ez dute kobratu langileek; zuzendaritzak dio salmentek behera egin zutela eta Konkurtso Legearekin argituko direla gauzak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako Orniko langileen artean ezinegona da nagusi. Zuzendaritzak lau nomina sor dizkie (abendutik ez dute kobratzen) eta enpresa Konkurtso Legean sartuta, etorkizuna beltz ikusten dute. 47 langile dira Ornin eta Dakigun (lantegiaren azpiko enpresa) eta iazkoa urte normala izanda, ez dute ulertzen enpresak nola jo duen behea. Zera salatu dute: zuzendaritzak diru gehiago inbertitzeko gertu ez zegoela esan zela bakarrik. Urtarrilean kobratu barik lan egiteko konpromisoa hartu zuten langileek, baina egoerak ez zuten hobera egin. Urtarrilaren 26tik egunero joaten dira



Orniko langile talde bat egubakoitzean, lantegiko sarreraren ondoan, San Juango industrialdean.

GOIENKARIA

lanera, baina lantegiaren jarduna geldirik dago. Orniko zuzendarietako batek zera esan digu: "Uztailetik ez dugu apenas saldu,

aurreikuspenak onak baziren ere. Bazkideon aldetik, lantegia aurrera ateratzeko ahalegin handia egin dugu baina ezinezkoa izan

da eta ez dugu onartzen inolaz ere lapurretan ibili garenik esatea. Konkurtso Legearekin gauzak argituko dira".

BI ADMINISTRAILE IZENDATUTA

Zuzendaritzak kontratuen etetea aurkeztu zuen otsailaren erdialdean eta sasoi hartan protestak hasi ziren. Hiru langilek epaiketa izango dute hilaren 18an zuzendaritzako kide bat iraindu eta mehatxatzeagatik. Langileak oso haserre daude ugazabekin: "Hiru langileren egoera ekonomiko larria zela-eta, gutxienez beraiendako dirua aurreratzea eskatu genien abenduan, baina hori ere ez zuten egin".

Enpresa Konkurtso Legean murgilduta, bi administratzaile izendatu ditu epaileak dagoeneko. Bien bitartean, egunero lantegira joaten dira langileak, goizez eta arratsaldean. Lanik ez izatean, egoera jasanezina dela diote.

Makina-erremintako sektorean dihardu Ornik eta 2004an Merkataritza Ganberaren Pyme saria jaso zuen. Urteetan gaur egun Eroskik Amillagan duen pabiloian egon ondoren, hura saldu eta tailer berria inauguratu zuten San Juanen 2006ko udan. Eguaztenerako, manifestazioa deitu dute langileek, 19:00etan San Martin plazan.

ENPRESA > MONDRAGON

Mondragon Taldeak industria parke berria egingo du Indian

Taldeko zortzi bat kooperatiba jasoko ditu parke berriak

Kide eta Danobat bete-betean lanean 2010. urtearen hasieran

E.M. > BERGARA

Mondragon Taldearen kooperatibak jasoko dituen industria parke berria egiten hasi dira Pune hirian, Indian. 2007. urtean Txinan hasitako ibilbideari jarraipena emanez, Indiako industria eta teknologiaren gune garrantzitsuenetakoa den Pune hiria aukeratu dute orain Mondragoneko arduradunek. Aipatutako industria parkeak 240.000 metro karratu inguruko azalera dauka eta Punetik 65 kilometrora dago,

hegoaldera aldera. Bertan Espainiako beste hainbat enpresa ari dira lanean dagoeneko.

Hasiera baten, Mondragon Taldearen zortzi bat kooperatiba jasoko ditu parke berriak. Kide eta Danobat 2010eko lehen hiruhilabetekoan bete-betean lanean egotea aurreikusten dute. Aurrerago beste kooperatiba eramango dituzte bertara. Ashutosh Sharma da Mondragoneko zuzendaria Indian eta baikor da hango industriaren etorkizunaz.

> MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Metca masterreko diploma banaketa egin zuten egubakoitzean Epsilon Euskadiko egoitzan

Joan Villaldeprat Epsilon Euskadiko presidentea eta Josu Zabala Mondragon Unibertsitateko errektorea Metca masterreko diploma banaketa egin zuten egubakoitzean, Azkoitian. Besteak beste, Manuel Villaverde Euskal Auto Federazioko presidentea eta Alex Beitia MUko masterreko zuzendaria izan ziren ekitaldian. Laugarren promozioiko ikasleen lanak goraiatu zituen Ivan Platas Epsilon Euskadiko Metcako zuzendariak.

> ZAHARREN EGOITZAK

Gaur eta eguaztenean ordubeteko geldialdia egingo dute Eskoriatza eta Bergarako egoitzetan

Gipuzkoako zaharren egoitzetan azpikontratututako langileek protesta ekitaldiekin jarraitzen dute, lan hitzarmena dela eta. Gaur, astelehena, eta etzi, eguaztana, ordubeteko geldialdia deitu dute Eskoriatzako eta Bergarako egoitzetan, 08:00etatik 09:00etara. Egubakoitzerako, martxoaren 13rako, lau orduko geldialdia deituta du ELA sindikatuak.

LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 31 45

auzorik auzo

LARRIÑO > Aretxabaleta hirigunetik bi kilometrora dago Larriño, Urkulu urtegiaren aldamenean. Lau haizetara begiratuta Aloña, Kurtzebarri, Anboto eta Muru ikusten dira. San Kristobal da auzoko eliza; ondoan, hilerria dago.



Fernando Unanue auzoan; atzealdean, San Kristobal eliza eta mendiak elurtuta.

ARANTZAZU EZKIBEL

Fernando Unanue > Auzo-alkatea

"Elizako arkupetan dago garai batean artzaintzaren mugak ezartzen zituen sarioia"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA
Kalekoa da izatez Larriño auzo-alkate Fernando Unanue; baina, auzora ezkondu dago. Auzo txikia da Larriño: 14 baserri inguru ditu eta biztanleak, oster, 50 inguru. Auzoko berri eman digu Unanuek.

Auzo lasaia da Larriño, baina izango dituzue kezkek. Zein da Larriño duen arazo nagusia?

Gauza asko daude egiteko, hortaz, ez dakit ze eskari den nagusia. Adibidez, teknologia berriak oso gaizki jasotzen ditugu. Elizaren alde batean dauden baserriek Murutik jasotzen dute Internet seinalea; baina, eliz ostean gaudenok ez dugu seinalerik jasotzen.

Beste behar batzuk ere badaude, adibidez, saneamenduari dagozkionak. Ez dago putzu septikoa etxe guztietan; hori jartzea komeniko litzateke, baina proiektu horiek epe luzerakoak dira.

Auzotarren kezak entzun ditugu; diote baso bideak garbitu behar direla.

Bai, adibidez, Larriñotik Ursabalera doan bidea konpondu beharra dago. Azkeneko urteetan ez dira bideak konpondu, eta beharra dago. Bide horiek ez dira erabiltzen lehen erabiltzen ziren moduan, eta ondorioz utzita daude. Auzotarrek azaldu didate euren kezka; izan ere, auzoan esplotazioak daude, eta jendeak

pinudiak ditu; hortaz, hara joan behar duenarentzat bideak ez daude batere ondo.

Lan horiek egin daitezke auzo-lanean, edo enpresa bati eskatuta. Udalarekin egon behar dugu eta ea euren zer dioten gai honi buruz. Azkeneko bost urteetan ez da ezer egin.

San Kristobalen omenez antolatzen dituzue jaiak. Zerbait berezia egiteko ohitura duzue?

IBILBIDEA

"Arantzazura doan erromesen bidea pasatzen da auzotik"

Larriñotik pasatzen da Arrasatek irten eta Arantzazura doan erromesen bidea. Arrasateko Bedoña auzotik sartzen da Larriñora; auzoa errepide nagusitik zeharkatzen du eta Zuatzura jaisten da, handik gero Urkulura joateko. "Urkulutik Urrexolara doa bidea; handik Jaturabera, Gesaltzara eta Arantzazura azkenean", azaldu du Fernando Unanuek auzoan egin daitezkeen ibilbideez galdetuta.

Urtero egiten du Arrasateko talde batek erromesen bidea. Unanuek azaldu du bidea markatuta dagoela eta oso polita dela egiteko.

Joan zen urtean, adibidez, lehenengo aldiz egin genuen auzokide guztiekin batera afaria. Oso giro polita sortu zen, hori da behintzat nire sentsazioa.

Auzotarren artean harremanak sortzeko balio izan zuen; izan ere, askotan hiletan elizkizunetan edo egoera txarretan bakarrik elkartzen gara. Aurten errepikatze gogoia daukagu.

Gutxik jakingo dute San Kristobal elizako arkupetan, sarioia dagoela.

Elizpean dago; lehen garai baten artzaintzaren mugak ezartzen zituen harria da sarioia. Egia esan, orain dela gutxi jakin dut zer den sarioia.

Politena, baina, eliza bera dela uste dut. Txikia da, baina oso alai; izan ere, argi naturala sartzen da barrura.

Eta, pilotaleku txiki bat duzue elizaren aldamenean.

Bai, auzoarena da pilotalekua. Elizaren ondoan dago.

Badaukazue auzotarrak elkartzeko lokalik?

Ez, ez daukagu auzo-lokalik. Elkartea dago, hain justu elizaren ondoan eta han elkartzen gara auzotarrak. Normalean, arazoren bat sortzen denean elkartzen gara auzotarrak, ohitura bezala ez daukagu egun jakin baten elkartzeko ohitura.

ASTELEHENENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Martxoko zozketa

Sariak irabazteko

HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 40 euro

SARRERAK



Bruesa GBC- MTT Estudiantes partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

ZIRA



Euskal Kirol Federazioaren zira.
BIDALI ZIRA 5533 zkra.

LIBURUAK



Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra

KAMISETAK

korrika



Korrika-ko 4 kamiseta.
BIDALI AG KORRIKA 5533 zkra.

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN
ARTEAN ZOZKETATUKO DA

URDAIBAICO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, hailer zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

MIREN ARREGI > BERGARA

Irunenjaio arren, bizitza guztia eman du Iruñan Iñaki Sagredok. Historia-gilea, Nafarroako gazteluen gaineko historia eta gazteluek Nafarroako erreinuan eta Euskal Herriaren nortasunean izan duten garrantzia azaltzen duten hiru liburu argitaratu ditu dagoeneko. Amaiurko gazteluaren gaineko liburu bat ere bidean du. Nafarroako erreinuko gazteluen gainean, eguaztenenean berba egingo du Sagredok Bergarako osoko bilkuren aretoan, 19:00etan; hark dioen moduan, "gazteluen historiaren bitartez, gure herriaren historia ezagutu daiteke".

Zein izango da Bergarako hitzaldiaren funtsa?

Baskoien historia kontatzen duen dokumental bat eskainiko da lehenik. *La defensa de los vascos* izena du dokumentalak. Ondoren, Gipuzkoako gazteluen historia kontatzean oinarrituko gara: Gipuzkoan zeuden gazteluak, zergatik eraiki ziren eta zein misio edo helburu zuten...

Zein helbururekin egiten da hitzaldia?

Gaur egungo egitura politikoa kontutan izanda, zaila da azaltzea edo ikusi araztea euskaldunok nafarrak izan ginela garai baten. Nafarroako erreinua, gaur egungo Euskal Herria, estatu bat izan zela alegia. Oraingo mugarik ez zen existitzen eta Nafarroako erreinua zen herria, hizkuntza eta nortasun propioarekin. Kontzientzia hori sortu gura dugu hitzaldien eta herritarrak historiaren jakitun egitearen bitartez.

Gazteluak, beste ezeren aurretik defentsa guneak ziren, baina benetan, hori baino zerbait gehiago ere baziren...

Herriaren esentzia ziren. Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenean gaztelu guztiak bota zituen; 100 gaztelutik gora. Gazteluak eraisteko agindua Cisneros kardinalak eman zuen, Gaztelako erregeordea zenak, eta agindua bete zuena, berriz, kristobal Villalva koronela izan zen. Gazteluak independentziaren eta harrotasunaren adierazgarri ziren; eta nola ez, defentsa guneak ziren, eta baita kontrol administratiboa eta militarra gauzatzen zen gunea ere.

Erdi Aroko gazteluez ari gara ezta?

Erdi Aroa bi arotan bereizten da; Erdi Aro garaia, VIII. Mendetik XII.era luzatzen dena, eta behe erdi aroa, XII. mendetik aurrerakoa; garai gotiko bezala ezaguna. Gazteluak Erdi Aro garaian eraikitakoak dira; oso antzinakoak.

Eta zenbat gaztelu egon zitezkeen garai hartan orain Euskal Herri bezala ezagutzen dugun horretan?

225 bat egongo ziren, guztiak garai berean gainera. Horietan, gizon talde txoak bizi ziren, izan ere, gazteluetaz berba egiten dugunean burura etortzen zaizkigu halako eraikin handi eta dotoreak, eta errealitatean, gure gazteluak ez ziren horrelakoak; dorre batez eta harresiz inguratutako gunak ziren.

Iñaki Sagredo > Historialaria

"Nafarroako erreinua zen herria, hizkuntza eta nortasun propioaz"



Iñaki Sagredok Nafarroako Gazteluak eta euren historia aztertu ditu.

GOIENKARIA

"Nabarralde elkarteak antolatuta, hilaren 11an izango gara Bergaran Nafarroako gazteluen gaineko hitzaldi batekin"

Gehienetan ez ziren 10 pertsona baino gehiago bizi. Kuriosoena da, gazteluak euren artean komunikaturik zeudela. *El Señor de los Anillos* pelikulan bezala; suaren bitartez gazteluak euren artean komunikatzen ziren eta horrek eramaten gaitu pentsatzera, gazteluek euren artean sare bat osatzeaz gain, bat erasotzen zutenean, oso epe laburrean beste guztiak erasoaren jakitun egiten zirela.

Eta nortzuk bizi ziren gazteluetan?

Denetik zegoen, baina gehienbat soldaduak ziren bertan bizi

zirenak. Inguruetak herrietako gizonak ziren, ez armadaren parte zirenak, baizik eta armak erabiltzen zekien jendea. Kasu askotan laborariak ere bizi ziren. Argi dagoena da gazteluek berebiziko garrantzia izan zutela eta horren adierazle da erregeek diru mordoa gastatzen zutela horiek konpontzeko eta mantentzeko.

Gipuzkoako gazteluek Nafarroakoekin eta Arabakoekin alderatuz ezaugarri desberdinak zituzten?

Gipuzkoako gaztelu askok haitzuloak dituzte ondoan, nahita

haitzuloen inguruan eraikitakoak dira. Aitzorrotzek (Eskoria-tza), esaterako, baditu beste ezaugarri batzuk, eta horietako bat da, adibidez, gaztelurako sarbideetan, pertsona bakar batentzako tokia zegoela. Hala, banaka sartu behar izaten ziren erasotzaileak; eta sarbide horiek, amildegi batera bideratzen zituzten erasotzaileak, horrela, zuzen zuzenean amildegitik behera erortzea lortzen zutelarik. Halako sarbideak zituzten gaztelu bat baino gehiago dago Gipuzkoan. Ondo pentsatuta zeuden, inondik inora.

Zein garaitan bota zituzten gazteluok?

Nafarroako gazteluak 1512ko Nafarroako konkistaren ostean eraitsi ziren. Garai desberdinetan bota zituzten; Lizarrakoa azkena izan zen, eta hori 1572an izan zen. Benetan gaztelu politikak eta garrantzitsuak zeuden Nafarroan, Tuterakoa esaterako. Eta guztia bota zuten. Kontutan izan behar da, Tuterak Gaztelako Errege katolikoei aurre egin ziela sutsuki. Eta kontutan izan behar da, baita ere, gazteluak ez ezik, harresiz babestutako gune guztiak ere bota egin zituztela.

Amaiurko gazteluaren eraistek zer suposatu zuen?

Amaiurkoa, Nafarroako erreinua berreskuratzeko azken ahalegina izan zen. Testuinguruan kokatu beharra dago. Amaiurko gazteluan 200 bat pertsona egongo ziren, tartean ospetsuak, San Frantzisko Xabier anaiak, esaterako... Eta bestetik, Karlos V.a enperadorearen armada handia zegoen. Nafarrak ahal izan zuten moduan eta sutsuki defendatu ziren, nahiz eta gehienak hil egin zituzten. Pentsa, Karlos V.a enperadorearen 100.000 pertsonaz osatutako armada 200 pertsonen kontra...

Ba dakigu gazteluak nola eraikitzen ziren?

Bai, artxiobotan Erdi Aroko erregistro asko dago. Gaurko fakturak bezalakoak dira, eta oso garrantzitsuak dira gazteluak nola eraikitzen diren jakiteko. Dena dela, data batetik aurrerakoak dira dokumentu horiek, eta beraz, asko dago ikertzeko.

Gehiago aztertu dira Nafarroako gazteluak ala?

XIV. mendetik aurrerako eraikitze tekniken gaineko informazio gutxiago dago. Dena den, Gipuzkoako gazteluak nola eraiki ziren jakitea ez da zaila, Nafarroakoak nola eraiki ziren badakigu-eta.

Formari dagokionean? Antzerakoak ziren guztiak?

Inguruneari eta tokian tokiko beharrei egokitutako formak ematen zizkieten gazteluei. Ingurumenaren araberaokak zire gazteluak; maisuaren araberaokak ere izan ohi zen. Defentsarako hobeak ziren zirkularrak zirenak, barruko bizitza erosoago baterako laukiak ziren egokiagoak... azken finean gaztelu bakoitzen forma izango zuen funtzioaren araberaokak izaten zen.


Baita zu ere.

Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.

Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero, CIEsek emandako datu berrien arabera. Eskerrik asko, irakurle guztioi.

- > GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea.
- > Debagoiendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.

Goienkaria



kale inkesta

Zer gertatuko litzateke emakumeek zaintza eta etxeko lanak egiteari utziko baliote?

Bechir Benali
Langilea
Oñati

Hondamendia izango litzateke. Nik badakit etxeko lanak egiten, baina ez emakumeak beste. Egia esan, etxean biok egiten ditugu lanak; ahalgintzen gara lanaren erantzukizuna bion artean banatzen.

Milagros Letamendi
Erretiratua
Oñati

Hori gertatuko balitz gizonak ikasi egin behar luke etxeko lanak egiten. Baina, esan behar da gaur egun ez litzatekeela arazo larria izango; izan ere, oraingo gizonen badakite etxeko lanak egiten.

Arantxa Palacin
Langilea
Oñati

Dena geratuko litzateke. Ohituta gaude etxeko lanak emakumeak egiten; gizonen egiten dute, baina emakumeek baino askoz gutxiago. Hala ere, orain gauzak aldatzen dabilta eta gazteek lan gehiago egiten dute.

Ivan Sanchez
Langilea
Oñati

Kaos bat izango litzateke. Nik egiten ditut etxeko lanak, baina esan behar da bera gehiago arduratzen dela etxeko kontuez. Nik etxean laguntzen dut, baina bera gabe hondamendia izango litzateke.

zorroztailea



Markos Balentziaga

Ez itxi, ez itsu

"Iruñeko zortzi liburutegi publikoetan *Berria* eta *Gara* egunkariak ez erostea erabaki du Paz Prieto Iruñeko Kultura zinegotziak. Barañainen (Nafarroa) ere gauza bera ebatzi zuen joan den otsailan Pablo Gomez udalerriko Kultura zinegotziak. (...)"



'Berria' > 2009-03-06

Euskal Herrixaren mendebal parte honetan, Euskadin, lehendakari nor, argitzen gabitzen bittartian, (Erreferendumaren legia ezin da aplikatu zalantza politiko eta existentsial kasu honetan, galdetuz, barbarako: "Ari, ari, ari, Joanjo ala Patxi, nor lehendakari?" Lastima!), Naparruan agintari batzuk ez dihardue denboria alperrik galtzen.

Hara zer zekarren egubakoitzeko *Berria*-k: "Zortzi liburutegi publikoetan *Berria* eta *Gara* ez erostea erabagi du Iruñeko Udalak". Gero, barrixaren xeheketan Iruñekoaz gañera, Barañaingo udalak be erabaki bera hartu dabela gañeratzen dau egunkariak.

Halakuak irakurri eta ahaztu samartuak geneuzkan sasoi-etara bueltatziaren harra irabixatzen jat barruan. Erabagixa Iruñeko Udalarena da, izan, baña atzian, bertako alkate bromatologian doktore dan Barcina andriaren eskuari antzemoten dotsat.

Euskal usaineko ezerk ez dotsa onik egiten Barcina andriari, itxura danez. Gabonetan, esaterako, Iruñeko zenbait kaleetara Olentzero ateraziari trabia besterik ez dotsa ipiñi izan bertako alkate danetik.

Ona da alkatia herritarren jan-neurriz eta dietiaz arduratza, baña herriko liburutegi publikoetatik egunkariak erretiraziak dieta informatibua ezartziaren antz eskandaloso samarra dauka, eta gogorantzia dogu hori egittiak frankismuaren zentsurarik gordiñena ekarren dosku gogora.

Jendiaren osasun integralaz hain arduraturik dabillen alkatiak ondo egingo leuke ahaztuko ez baleu bai *Gara* eta bai *Berria*ren aurrekari izandako Egin eta Euskaldunon egunkaria orduan Barcinak alderdi zeban PPko gobernuak itxi zittuala zuzen-zuzenian edo juezaren laguntza artezaren bidez.

Liburutegiko atia egunkari bati itxia ez da egunkarixa bera itxia, baña bai halakua erabagi dabenaren itxikerixiaren espillu. Barcina alkate eta Prieto kultura-zinegotzi andrak, ez zaitzte izan ez hain itxi eta ez hain itsu.

"Liburutegixetatik egunkariak erretiratzia dieta informatibua da"

"Frankismuaren zentsura gordiña gogoraketan dau"

irakurlearen txokoa

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketen gainean kexa

Arrasateko irakurle batek deitu du babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa dela-eta. Galdetu du ea zergatik ez dituzten zozketan sartuko diren zerrendak aurrez berrikusten. "700 pertsonako zerrenda aurrez berrikusi beharrean, etxebizitzara tokatu zaien 120 pertsonen datuak bakarrik berrikusten dute", dio. Gaineratu du zozketa egin aurretik baja eman dutenei etxea egokitu zaiela; eta, hori ez litzatekeela gertatuko datuak aurrez berrikusiko balira.

BERGARA

> Zubiaurre auzoan zaintza gehiago eskatu dute

Zubiaurreko bizilagun batek idatzi digu esateko zaintza handiagoa behar duela auzoak. "Udaltzainek auto berriak erosi dituzte; hala, lehen baino gehiago pasatzen dira auzotik, baina ez dira geratzen. Uste dut auzoak zaintza gehiago merezi duela. Udaltzainek bere lana egin beharko lukete; adibidez, gaizki aparkatuta dauden autoei isunak jarritz", dio Zubiaurreko bizilagunak.

ARAMAIO

> Lur-jausiaren ondorioz, Ametzuko bidea itxita dago

Aramaioko hainbat herritarrek deitu dute kezkatuta. "Egubakoitzeko lur-jausiaren ondorioz, Ametzuko bidea itxita dago eta horrela astebetetz egongo dela dio alkateak. Hemen jende nagusia bizi da eta beste batzuk esplotazioak dituzte. Kezkatuta gaude ezin dugulako herrira jaitsi", diote Aramaioko bizilagunak.

usteak uste

Jasone Zabala

Lapurretak eta nire bufanda

Ez da berria Debagoieneko herrietan azken aldian gertatzen dabilzan lapurreten kontua. Irudikatu ezin dugun era ezberdinetan lapurtzen dute gainera! Guk zer egin? Salaketa jarri eta ezer gutxi gehiago zoritzarrez... Egubakoitzean Bergaran bi autotan...

Nik behintzat zorrea izan dut orain arte, baina badaezpada ez noa altuegi esatera, lapurrek esandako guztiak kontutan hartzen dituzte-eta! Baina hala gertatuko balitz eta zorte txarrak nire autoari eragingo balio, ondorengo eskatuko nieke: mesedez ez lapurtu gehiago... Krisi egoeran gaude-eta; nire autoa parean tokatzen bazaizue, ez lapurtu autoan dudan Baskoniako bufanda, beharrezkoa dut eta eguenean Olympiakosen aurkako partiduan animatzeko.

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Iker Barandiaran Erredakzioa Arantzazu Ezkibel, Jasone Zabala, Mireni Arregi Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrahaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oltalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.comHarpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19 Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**
Udaberrian zabalduko dituzte berriro herriko iturriak, izotz arriskua gainditu ostean > 14



> **BERGARA**
Herriko hainbat kaletako espaloietan ez labaintzeko tratamendua ematen hasi dira astean > 16



> **OÑATI**
Luis Duran komikilariari elkarrizketa egin diogu, 'El mago descalzo' liburua argitaratu duelako > 18



Egubakoitzean egindako Plan estrategikoaren aurkezpenean esku hartu zuten Mankomunitate, Jaurilaritza, Jakion eta Sukal Leku Fundazioko ordezkariak.

JASONE ZABALA

LEINTZ GATZAGA > 2009-2011RAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Ekoizpena, komertzializazioa eta hornikuntza, Jakionen erronkak

PLAN BERRIA

"Esperientziak irakatsitakoa praktikan jarri nahi dugu", esan zuen Iraia Solak

ERRONKAK

Asmoen artean beste kokapen bat izango duen enpresa berria sortzea dago

JASONE ZABALA > LEINTZ GATZAGA

Jakion enpresak 2009-11 Plan estrategikoaren aurkezpena egin zuen joan den egubakoitzean, Leintz Gatzagako Soran Etxea hotolean.

Bertan egon ziren, besteak beste, Jakioneko lehendakari Luis Arkauz; Iraia Sola plan estrategikoaren arduraduna; Gonzalo Saenz de Samaniego Nekazaritza, arrantza eta elikadura sailburua; Rafael Uribarren Landa Inguru-nearen Garapeneko diputatua; Sukal Leku fundazioko Koldo Lasa eta Alberto Elortza sukaldariak eta Ino Galparsoro Mankomunitateko lehendakaria.

PLAN BERRIAREN ETORKIZUNA

Arkauzek hitz egin zuen lehendabizi eta adierazi zuen gaurko egoera ekonomikoa kontutan hartuta, Jakionen atzetik dauden baserriarrak, Udalak eta langileak lan bikaina egiten dabiltzala. "Gau-

den krisi egoera kontutan hartuta, baserri munduan eta bertako produktuak lantzen jarraitu nahi duenari hala segitzeko esaten diot, hortxe egongo delako Jakion guzti horiei laguntzeko". Iraia Solak, plan estrategikoaren arduradunak, Jakionek lortutako emaitzak eta etorkizuneko asmoak zeintzuk diren aipatu zituen: "Dagoeneko martxan den plan berriare-

DATUA

270.000

MILIOI EURO

Iraia Solak azaldu zuen moduan, Jakionek 2008an izandako fakturazioa 160.000 eurokoa izan da, baina datorren urtean helburua 270.000 eurotara heltzea izango dela adierazi zuen.

kin urte hauetako esperientziak irakatsitakoa praktikan jarri nahi dugu; emaitza azpimarragarriak lortu ditugu jada: 2007tik 2008ra ekoizpenaren hazkundera %40 izan da eta salmentak %33 handitu dira. Are gehiago, iazko ekainetik gaur arte %59 izan da hazkundera salmentan". Hasieratik egin duen bezala, Itsasmendikoi elkarre publikoak proiektua babestuko du eta plan estrategikoaren motorizazioaz eta jarraipena egiteaz arduratuko da.

ERRONKAK

Planifikazioa indartuko dute hiru arlotan bereziki: ekoizpena, hornikuntza sistema eta komertzializazioa. Horrela, estrategia komertziala aldatu eta marketinari garrantzia gehiago emango diote, kontsumitzaile zein baserriarrek Jakion zer den ezagutu dezaten; enpresa berria sortuko dute

beste kokapen batean—Arlabane-ko planaren barruan—; sare komertziala hedatuko dute Gipuzkoatik EAera eta beste erkidegoetara zabaltzeko apustua egingo dute eta produktu berriak plazaratuko dituzte: besteak beste, labeldun kontserba berriak, zaharren egoiztarako produktu bereziak.

JAKIONEN SORRERA

Jakion duela 11 urte sortu zuen Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak, Debagoieneko zortzi udalek eta bailarako 37 baserriarrek osatzen duten enpresa, inguruko baserriarrek ekoizten dituzten produktuei irtenbidea emateko. Ordutik, fruta eta barazki naturalen kontserbak komertzializatzen ditu eta hainbat enpresa ekologikoren produktuak eraldatu: besteak beste, labeldun ekoizleena edo Tolosako Babarrun Elkartearena.



Merke egon arren, bezeroek arretaz begiratu zituzten produktuak.

J.A.



5, 10 zein 20 euroren truke, hainbat arropa egon ziren aukeran azokan.

J.A.



Zapatu goiz eta eguerdian jendez beteta egon zen Merkemerkaia azoka.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > MERKEMERKAUA

Beherapenei eusteko apustuak oso harrera ona izan du berriro

Zapatuan eta domekan herriko merkatariek Merkemerkaia azokaren hirugarren edizioa egin zuten

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Ibai Artek Merkemerkaia behe-rapenen azoka egin du hirugarren aldiz Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Zapatuan eta domekan arropaz bete zuten frontoia, eta herenegun, zapatua, jende asko ibili zen azokan.

HEMEZORTZI SALTOKI

Jende asko hurbildu zen denbaldiko maukak bilatzera; eta baita aurkitu ere: oinetakoak 40 eurotan, kamisetak 5 edo 10 eurotan, snow tablak prezio erdian...

Hemezortzi saltoki jarri zituzten Uarkapen eta saltzaile gehie-

nak, salbuespenak salbuespen, pozik zeuden azokak izan duen harrerarekin eta egindako salmentekin. Horien artean Eskoriaztako Maluta dendak ere izan zuten saltokia. Denda laster ixtera doa eta snow taulak eta arropa lehenbailehen kendu gura

dituzte. Baina, orokorrean guztien helburua da arropa kentzea eta, jakina, etekina ateratzea.

Saltzaileek jakitera eman zuten azokan sarrerarik ez kobratzeak on egin diela; eta aurreko urteetan baino jende gehiago dabilela.

IBAI ARTEKO TXARTELAK

Bestalde, azokako harreran lanean egon ziren langileek lan ugari izan zuten; eta azaldu digute bertan Ibai Arteko txartel ugari egin dituztela: "Guk hasieran egindako aurreikuspenak gainditu ditugu. Oso pozik gaude azokaren emaitzarekin, herritarrek oso ondo erantzun dute".



Euriak kalte egin zien arren, saltzaileak pozik daude zapatuko ekimenak izandako harrerarekin.

J.ARANTZABAL

BERGARA > BEDELKAR

Erdiguneko saltokiek kalera atera zituzten euren produktuak

Herriko 30 negoziok esku hartu zuten ekimenean, eta oso harrera ona izan zuen

I.B. > <BERGARA

Aurten, lehenengo aldiz, Bergarako merkatarien Bedelkar elkar-teak *Azoka txikia kalean* ekimena abiarazi du. Hala, zapatu goizean herriko hemezortzi negoziok (tartean, saltokiak eta bestelakoak) euren produktuak

kalera atera zituzten, denda pare-ra. Horren helburua zen zelabait beherapen sasoia luzatzea; eta baita lortu ere.

Bergarako hainbat dendarik azaldukoaren arabera, oso pozik daude zapatuko ekimenak izan zuen harrerarekin.

BERGARA > JAIK OSINTXUN

Santu Martirixen jaian, bertsoak eta umeen jolasak

Bi ekitaldi egin dituzte asteburuan Osintxun, aspaldi jai horretan egiten zuten moduan

IKER BARANDIARAN > BERGARA
Osintxun Emeterio eta Zeledonioren, Santu Martirixen, jai ospatu dute asteburuan. Zenbait urtetan baserrietako erremintan azoka egin duten arren, aspaldian, hori barik, iragane-ko egitaraua egin dute.

Zapatua umeen jolasekin hasi zuten. Inongo ikuskizunik ekarri barik, auzoko gazteek erabaki zuten txikienendako jolasak eurek antolatzea. Zeregin hori hartu zuten hainbat gaztetxok, eta txokolate-jana prestatzeaz gain, jolasean jarri zituzten txikienak: arrautzak garraiatzea, irinarekin margotzea, txokolate-guda eta beste batzuk. Osintxuarek frogatu zuten inongo asmakizunik ezta

kanpotik ezer ekarrita, lehen egiten zen moduan, gai direla disfrutatzen.

BERTAKOEK BERTAKO JOLASAK
Zapatu gauean bertso-afaria egin zuten Txuringo jatetxean. Auzotarrek jatetxea zenaren zati bat daukate euren kargu, eta han 40 bat lagun batu ziren mahaiaren bueltan. Ondo afaltzeaz gain, Villabonako Amaia Agirre eta Algortako Xabi Paya ibili ziren bertsoan, eta ohikoa den moduan, Iñaki Etxaniz osintxuara izan zen gai jartzailerak. Hain gustura egon ziren batutakoak, erlojuari larregi erreparatu barik, 02:30ak arte ez zirela Txuringotik etxerantz joan.



JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA > INGURUMENA

Zuhaitz Eguna ospatu zuten

Herenegun, zapatua, Zuhaitz Eguna ospatu zuten Bergaran. Horren inguruan, hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Batetik, zuhaitz eta landareen azoka egin zuten San Martin plazan. Han batu ziren hainbat baserritar eta landare zaletu. Bestetik, Udako Ingurumen Sailak zuhaitz landatzea antolatu zuen. Hala, Bergarako 110 bat ume eta gaztetxo igo ziren Gorlara autobusean, eta han 75 bat zuhaitz landatu zituzten; batez ere pagoak. Hamarretakoa egin ostean, kalera jaitsi ziren berriro.



Zapatuko bertso-afarian 40 lagun batu ziren Txuringo jatetxean. J.ARANTZABAL



Umeek jolasak izan zituzten. J.ARANTZABAL

BERGARA > 'MISERABLEAK', MUNDUKO MUSIKALIK ARRAKASTATSUENA

Bergarako pilotalekua izango da berrestreinaldiaren lekuko

'Miserableak' lana zapatuan taularatuko dute hamabost urte eta gero; bi emanaldi egingo dira, bata 19:00etan eta bestea 22:30ean

MIREN ARREGI > BERGARA
Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi nagusia izango dela zalantzarik ez. Hamabost urte eta gero, bergararrek munduko musikarik arrakastatsuena taularatuko dute berriz ere; *Miserableak* nobelaren antzerkirako moldaketa, datorren zapatuan berrestreinatuko dute Bergarako Udal Pilotalekuan, euskaraz.

ENTSEGUETAN BURU BELARRI
Iazko urte amaieran hasi ziren entseguetan. 160 pertsona koordinatzeko eta hurrengo zapatuak guztia prest izateko denbora beharrezkoa da-eta.

Berrikuntzarik ere izango da gainera aurtengo aurkezpenean; izan ere, duela hamabost urte egin ez zuten lan bat ere interpretatuko dute, hain justu Javert inspektorearen heriotza irudikatzen duena.

Bestetik, Bergaran ez ezik, Hondarribian ere antzeztuko dute lana, maiatzaren 9an.



Bergarako Udal Pilotalekuan atzoko entseguan. MIREN ARREGI

ZERBITZUAK > HERRIKO ITURRI ETA UR-PUTZUAK

Udaberrian zabalduko dituzte berriro herriko iturriak

Neguko Udal Planaren eraginez izan dira iturriak ur barik; abenduaz geroztik daude horrela, izotzak ur hodiak leher ez ditzan

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko iturrietako txorrotak siku daudela-eta, asteen zenbait herritar etorri dira erredakziora horrexegatik kexu. Arrasateko Udalean bertan ere izan dira kexuak gai horrekin lotuta. Bada, udal arduradunei azalpenak eskatuta, iturriak ur barik egotea neguko Udal Planaren ondorioa dela argitu dute, eta azaldu dute laster zabalduko dituztela berriro; udaberrian, hain justu.

UR-HODIAK APURTU

"Izotz denboran, iturrietako ura eten egiten dugu, bestela ur hodiak lehertu egiten dira. Bestetan, neguan iturriak martxan

laga izan dituztenean, ur-hodiak lurrazal kanpotik doazenez, lehertu egin izan dira, eta gero kalteak handiak izaten dira. Horrexegatik erabaki genuen ura moztea, eta udaberri aldera atzera ere zabaltzea iturriak", azaldu dute Udaleko Obra eta Zerbitzu Saitetik. Hori horrela, Gabonen aurretik daude herriko iturri guztiak ur barik.

HERRIKO BESTELAKO UR-GUNEAK

Bestalde, ura duten herriko beste zenbait gune ere ur barik daudela-eta izan da kexuren bat zein



Emakume bat Herriko Plazako iturriko ura edan nahian, baina ezinean, ez dagoelako urik.

U.M.

beste herritarren artean. Adibidez, Monterrongo ur-putzuarengatik. Kasu horretan, baina, ura etetearen arrazoia ez da izotzak eragin ditzakeen kalteak, baizik

eta, Obra eta Zerbitzu Saitetik azaldutakoaren arabera, inguruko auzotarrengandik jasotako kexuak, urak eragiten duen zarrata dela-eta. Monterrongo putzua

estaltzeko aurrekontua eskatuta du Udalak. Beraz, gai hori begiratzeko dute.

'TITI ATOMIKOA'

Eta ur barik dago, baita ere, Abaoren ondoan dagoen eskultura, *Titi atomiko* moduan ezaguna dena. Aspalditik dago, gainera, hura ur barik. Bada, kasu horretan ura kentzeko arrazoia uraren "larregiko kontsumoa" da. "Urkuluko urak daude hartuta monumentu horretarako, eta, behin erabili eta gero, erre-kara doa ura; hau da, ez da erre-kuperatzen. Hori kontsumo handiegia da. Horrexegatik erabaki zen monumentuaren ura etetea", azaldu dute Udaletik.

SANTA BARBARA

Ahateen ur-putzuarekin zer egin aztertzen dabil Udala

Bestalde, hainbat herritarren kezka eragin duen beste puntu bat da Santa Barbarako ahateen ur-putzua. Izan ere, hura ere siku dago. Baina ahateen ur-putzuaren kasuan, arazoa ez da neguko izotza, baizik eta ur-putzuko filtrazioak konpondu zizutenetik, hango ura geldu dagoela eta, ondorioz, berehala zikintzen edo usteltzen dela. "Momentuan ez dago urik. Motoponparekin atera behar izan genuen estolderiara botatzeko; izan ere, ur zikin hura ezin zen

errekara bota. Santa Barbarako ur-putzuan egoten diren ahatei dagokienez, haiek errekan dabilta orain, eta, egia esan, errekan gustura ibiltzen dira. Jakina, filtrazioaren eraginez, han dagoen ur-jauzia ere eten egin dugu. Orain Udalak pentsatu behar duena da zer egin ur-putzu horrekin. Izan ere, filtroak ipin daitezke ura garbi mantentzeko, baina filtro horiek garestiak dira. Horrela, orain zalantza daukagu zer egin", azaldu dute Obra eta Zerbitzu Saitetik.

INGURUMENA > ZUHAITZ EGUNA 2009

200 zuhaitz landatuko dituzte bihar herriko 145 ikaslek eta gura duten herritarrek

Garagartzan sartuko dituzte zuhaitzak; hala, autoz joan gura duenarenako Uribe auzoan egin dute hitzordua, 09:30ean

U.M. > ARRASATE

Bizkaitik ekarritako 136 haritz, Gipuzkoatik ekarritako 64 gaztainondo eta beste 40 zuhaixka (makatsak, sagar-minak, gereziandoak...) Uribarriko auzo batzordeak eskatutakoak landatuko dituzte bihar, martitzena, Garagartza auzoko Lete partzelan. Zuhaitz guztiak ere bertako espezieak dira, Pello Garai Ingurumen Saileko udal teknikariak azpimarratu duen moduan: "Inguruan dagoena ikusi eta imitatu egin behar dugu".



Iaz ere fin-fin ibili ziren neska-mutikoak zuhaitzak landatzen.

GOIENKARIA

Zuhaitzok landatzeko, Arizmendi ikastolako eta Herri Eskolako seigarren mailako neska-mutikoen partaidetza izango da biharko Zuhaitz Egunean; 145 ikaslerena, guztira.

ERRETIRATUENDAKO GONBITA

Horrez gainera, ohi duten moduan, edozein herritar ere gonbidatu gura dute ekitaldira, baina bereziki erretiratuak: "Askotan euren jatorriz baserri-

tarrak dira edo, behintzat, landagunetik etorritako erretiratu asko daude, eta nahiz eta gero fabrikari lan egin, badakite arbolak bat zela landatu. Ikusita denbora libre luzea dutela, bada, gonbidapena egin gura diegu", dio udal teknikariak. Eta azpimarratu du, baita ere, landaketa egin ostean, hamarretako goxoa izango dela guztiendako, eta baita oparitxo bana ere.

LETE PARTZELAN AZKENEN ALDIZ

Bestalde, aurtengo Zuhaitz Eguna izango duen berezitasun bat da Garagartzako Lete partzelan egiten duten azkena izango dela: "Zelaixko bat zen hura eta joandako lau urtean bertan egon gara; hala, seguru aski aurtengoa Lete egiten dugun azkena izango da, basotxo ederra dago-eta han. Hortaz, datorren urterako beste leku bat aurkitu beharko dugu Zuhaitz Egunerako".

oharrak

OSPAKIZUNA

> Kinto bazkaria

1940an jaiotako emakumeek ospakizuna egingo dute datorren martxoaren 28an. Eguna hasteko meza izango dute, San Juan parrokiari. Horren ostean, batzokira joango dira, 14:30ean, bazkaltzera. Ekitaldian parte hartu gura dutenek izena eman behar dute Zabaleta lurrindandian, 20 euro ordainduta, martxoaren 21a baino lehen.

ODOL EMAILEAK

> Odol ateratzeak

Odol ateratzeak egingo dituzte datorren astean Fagorren. Hitzordua da martxoaren 12an, eguna, Fagor Garagartzan, 09:30etik 13:15ak arte.

UDALA

> Tokiko batzarra

Gaur, astelehena, Udal Gobernuak Zerrajeran kutsatuta dauden lurra aztertuko ditu, besteak beste; garbitzeko lanen hasieraren gainean jardungo dute. Eta aztertuko dute, baita ere, Bibliotekako aurtengo animazio egitaraua.

TXATXILIPURDI > 2009KO UDALEKUAK

Udalekuetarako begirale zerrenda 'luzea' egin gura du Txatxilipurdik

Maiatzaren 8a da begirale moduan izena emateko azken eguna

Interesatuak formazio saioa egin beharko dute; saio horregatik aukera askeko kredituak emango dira

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Txatxilipurdi elkarteak hasi da dagoeneko 2009ko udalekuak prestatzen. Hala, udalekuotan ezinbestekoak diren begirale bila dabilta; hots, egin dute begirale berriak erakartzeko deia. Aurten, diotenez, begirale zerrenda "luzea" egin gura dute. Argia da Txatxilipurdiren mezua: "Haur eta gaztetxoekin lan egiteko gogoak baduzu, animatu eta hurbil zaitetz izena ematera".

IZENEMATEA

Begirale moduan lan egin nahi dutenek maiatzaren 8a dute euren eskakizuna bidaltzeko azken eguna. Hona hemen bidali beharrekoa: curriculuma, argazki bat, NAREN fotokopia, begirale edo zuzendari tituluaren kopiak (titu-

lua dutenek, noski) eta Txatxilipurdiren egoitzan eskuratu ahaliko den izenemate orria beteta.

Begiraleek, gainera, hiru baldintza bete beharko dituzte: gutxienez 18 urte izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen begirale formazio saioetan parte hartzea -derrigorrezkoa da-. Aipatu formazio saioa maiatzaren 23an izango da, eta, gainera, saioan parte hartzeagatik aukera askeko kredituak jaso ahaliko dituzte ikasleek: Euskal Herriko Unibertsitateak bi kreditu emango ditu eta Mondragon Unibertsitateak, berriz, hiru kreditu.

Bestalde, begiraleak aukeratzeko irizpideak dira begirale titulua izatea, ikasketak (curriculum), esperientzia eta laneko prestutasuna.

UDALEKU IBILTARIA

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere udaleku ibiltaria antolatuko dute Jardun, Berbaro eta Txatxilipurdi euskara elkarteek. 14 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago, eta, oraindik ibilbidea erabat zehaztu ez badute ere, Araban hasi eta kostalderaino oinez joango dira gaztetxoak.

Udaleku ibiltaria uztailearen 6an hasi eta hilaren 17an amaituko da eta Lander Juaristi Txatxilipurdiko gazte saileko ardu-



Begirale izatera animatu nahi dutenek maiatzaren 8a baino lehen bidali beharko dute eskakizuna.

GOIENKARIA

radunak dioenez, "iaz baino abentura gehiago izango ditu".

Gainera, uztaileko ohiko udaleku itxiek bi lekutan egingo dituzte, adinaren arabera: 10 eta 12 urte bitartekoak Etxarrira joango dira, Juaristik azaldu duenez: "Orain dela bi urte oso gustura ibili ginenez, bueltatu egingo gara". Iaz Ezkion izan ziren. Eta 12 eta 14 urte artekoak, berriz, Oriora joango dira.

GAZTE TXOKOAK ETA LUDOTEKAK

Martxoa, hankapaluan ibiltzeko hilabetea

Txatxilipurdik hankapalu ikastaroak antolatu ditu ludoteka eta gazte txokoetan, martxoa osoan. Hala, Arrasateko hiru ludoteketan asteon egingo dituzte ikastaroak, hezitzaileen eskutik: gaur Okendon, bihar Usaetxen eta etzi Santa Marinan. Bestalde, gazte txokoetan ere hankapaluen hilabetea izango da eta Mikel Ibartzabal bergararrak emango ditu ikastaroak. Ibartzabal aditua da hankapaluen gainean ibiltzen. Ikastaroak martxoaren 17an Musakolan, 18an San Andresen eta 24an Erguinen egingo dituzte. Azkenik, hilaren 25ean hankapaluen jaia egingo dute.



UBANE MADERA

Lan baldintzak hobetzeko protesta, osokora

Iturbide egoitzan lanean diharduten azpikontratatuak langileek -Urtza enpresarentzat egiten dute lan- joan den egueneko osoko bilkurara eroan zuten euren lan baldintzak hobetzeko aldarrikapena. Labur esanda, eskatzen dutena da eurekin batera lanean diharduten udal langileen lan baldintzekiko parekatzea. Ino Galparsoro alkateak azpimarratu zuen oraingoz ez dutela adostasunik lortu Udalak eta Iturbideko langileek, baina Udala gertu dagoela arazoa konpon dadin "esfortzu handia" egiteko.

AZPIEGITURAK > BIDEGORRIAK

Arrasate eta Aretxabaleta lotzeko bidegorriak 800 metro gehiago izango ditu

Fagor Arrasate guneko urbanizazio lanen barruan sartzen da bidegorria; hiru hilabete barru eginda egon beharko luke

J.B. > ARRASATE

Arrasate eta Aretxabaleta lotzen dituen bidegorriari 800 metro inguru gehiago luzatuko zaizkio, eta bidegorriaren luzapena Fagor Arrasate lantegia- ren atzealdetik egingo dute. Lanok aipatu industrialdearen lan berriak direla eta aurreikusita zeuden urbanizazio lanen barruan sartzen dira.

Bidegorri zati berria amaitzen dutenean, bi herrien arteko bidegorriak etenaldi bakarra izango du. Hots, tarte baka-

rra geratuko litzateke egiteke, Lana enpresa ondotik joango beharko lukeen bidegorri zatia, hain zuzen ere.

Bidegorri zati berria ez da oso luzea izango. Arrasateko Udaleko Hirigintza Sailak jakinarazi duenez, "800 metro inguru" izango ditu. Zati luzea ez bada ere, luzapen garrantzitsua izango da, bi bidegorrien arteko ezinbesteko lotunea izango delako. Lehen aipatu moduan, Udaleko Hirigintza Sailak aditzera eman duenez, obrek hiru hilabete inguru iraungo dute.

EPELE-ELORREGI BIDEGORRIA

Aipatu bidegorriak ez ditu Epele-Elorregi arteko bidegorriaren proiektuak beste arazo sortu. Udala ez dago ados azken proiektu horrekin, Aldundiaren proposamena gauzatzeak ez duelako "inongo zentzurik".

ZERBITZUAK > ESPALOIAK

Ez labaintzeko tratamendua eman dute

Eguazten eta eguen gauean jardun dute lanean Ibargarain, Martokon eta Kruz Gallastegin

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Herritarrak labaindu eta lurrea erortzeko arriskua ekidin nahi izan du Udalak. Horretarako, Hernaniko Antideslizantes Murua SL enpresaren zerbitzua kontratatu zuen eta dagoeneko egin ditu enpresa horrek egin beharreko lanak. Hain justu, herriko hiru gunetan labainkortasunaren kontrako tratamendua eman dute: Ibargarai kaleko ataripeetan (Ibargarai 32tik 54ra eta 3tik 9ra); Kruz Gallastegi kaleko bi ataripeetan eta Zubiaurre eta Martoko kaleen arteko aldapan. Guztira 1.144 metro espaloitan eman dute tratamendua.

GAUEZ EGIN DUTE LAN

Eguazten eta eguen gauean jardun dute lanean. Eguaztenean Zubiaurre eta Martoko arteko espaloian, Ibargarai 3tik 9ra arteko tartean eta Kruz Gallastegiko bi ataripeetan eman zuten tratamendua. Eta eguen gauean, Ibargarai 32tik 54ra bitarteko tartean.

Gauetz egin dute lan, alde bate-tik, jende ugari ibiltzen den espaloiak direnez tratamendua eman eta sikatu aurretik etengabe zapalduko lirakeelako; eta, beste aldetik, bizilagunei enbarazu txikiena egiteko asmoz".

TRATAMENDU BEREZIA

Zorua porositatea handitzen duen patentatutako tratamendu kimikoa erabiltzen du Hernaniko enpresak. Izan ere, porositatea handitzean labainkortasuna galdu egiten du zoruak. Bestalde, tratamendu horrek baldosaren itxura estetiko ez du batere aldatzen, ez dago obrarik egin beharrik eta ez da batere toxikoa. Prezioari dagokionez, metro karratuak 9 euro balio du.

Tratamenduaren iraupenari dagokionez, Erasunek azaldu du gutxienez bost eta zazpi urte artean irautea duela.

Iaz, azokan, Mintegi kalean eta Irizar pasealekuan eman zuten tratamendua enpresa berak.



Irudian, Muruako hiru langile eguazten gauean Ibargarai ataripean tratamendua ematen.

MONIKA BELASTEGI



GOIENKARIA

'Bolognari ez' esan zioten eguaztenean

Ipintza institutuko batxilergoko ikasleek egun osoko greba egin zuten eguaztenean. Ikasle Sindikatuak egindako deialdiarekin bat egin eta "hezkuntza publikoaren defentsan" Bologna prozesuaren aurka daudela azaldu zuten. Euren aldarrikapenak kalera ere atera zituzten Ipintzako ikasleek: 50 bat lagunek manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena, 12:00etan. Horren aurretik, 11:00 aldera, gaztetxean batu ziren eta Bolognarekin lotura duten hainbat irratsaioren grabazioak entzun zituzten batxilergoko ikasleek. Horrekin batera, txokolate jana ere egin zuten.

IKASTAROAK > IZENEMATEA

Lau ikastaro berri antolatu ditu Udalak apirilerako

Break dance, izar, larrugintza eta sendabelarren gaineko ikastaroak dira

M.B. > BERGARA

Udalak lau ikastaro antolatu ditu eta izenematea zabalik dago. Break dance ikastaroari dagokionez, apirilaren hasi eta ekainera arte izango da, egubakoitzetan, 19:00-21:00 ordutegian, Agorrosinen. Apirilaren 24an hasiko da eta ekainaren 26an bukatu. Irakaslea David Markez izango da.

Larruarekin egindako eskulanean ikastaroa hasiko da apirilaren 22an eta ekainaren 24an bukatuko da. Irakaslea Igor Herce izango da.

IZARRAK ETA SENDABELARRAK

Zeruko izarrek ezagutzen izeneko ikastaroa, berriz, apirilaren 21ean eta 28an izango da, 19:00-20:00 ordutegian, kul-

tura etxean. Izarrak ikusteko irteera ere egingo dute. Eskolak emango dituzte Ilatargi astronomia elkarteak.

Sendabelar ikastaroa ere antolatu dute. Maiatzeko eguenean izango da -maiatzak 7, 14, 21 eta 28-, 18:30-20:30 ordutegian, kultura etxean. Irakaslea izango da Alberto Altube.

PREZIOA ETA IZENEMATEA

Guztietan ala guztietan 15 euro da prezioa Bergaran erroldatutakoendako eta 20 gainerakoendako. Izena emateko jo kultura etxera martxoaren 28a baino lehen edo deitu 943 77 91 59 zenbakira.

UZTAILERAKO BEGIRALEAK

Udaleku irekietarako begiraleak bere behar dira. Izena emateko jo Xipizaro ludotekara -Agorrosin Ekintza Gunean-. Horretarako ordutegia da: astelehenetik egubakoitzera, 17:00-20:00 ea zapatutan, 10:00-13:00. Informazio gehiago 943779160 zenbakian.

INGURUMENA > URA

Uraren garrantzia lantzen ari dira eskoletan

Mariaren Lagundian, San Martinen, Aranzadin, Ipintzan eta Miguel Altunan dihardute ura lantzen

Eskolako Agenda 21 programaren barruan ari dira, herri iraunkorragoa lortzeko ahaleginean

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Herriko bost ikastetxeak eskolak eurak eta baita herria ere iraunkortasunerantz bideratzen saiatzen ari dira, Eskolako Agenda 21 programaren bitartez. Aurreko urteetan ingurumenarekin lotutako hainbat gai landu eta gero, 2008-09 ikasturtean dihardute ura aztertzen; iaz ere ura landu zuten.

Programaren helburua da eskolek eurenganatzea ingurumenarekiko kontzientzia eta ohiturak, herria geroago eta iraunkorrago bilakatzen laguntzeko.

Mariaren Lagundiak, San Martin herri eskolak, Aranzadi ikastolak, Ipintza institutuak eta

Miguel Altuna lanbide heziketa zentroak dihardute horretan. Hortaz, haur hezkuntzatik hasi eta batxiler eta goi mailako heziketa arteko ikasleak arituko dira lanean, ekintza plan bat egiteko.

DIAGNOSTIKOA

Iazko ikasturtean hasi ziren ura lantzen eta oraingo ikasturtean jarraipena emango diote.

Herriko diagnostikoa egiten dihardute egun ikasleek. Hori egiteko zenbait urrats emango dute: txikienez, Blai izeneko pertsonaiaren bitartez uraren erabilera ohiturak, uraren zikloa... aztertuko dituzte. 11-14 urte arte-



Irudian hainbat ikastetxetako ikasleak Errotalde parkean.

GOIENKARIA

koek, errekararen azterketa egingo dute. Iaz ere egin zuten eta iazko balioak aurtengoeekin alderatuko dituzte. Horrekin batera herriko ur-ordainagiria aztertuko dute egokia den ala ez baloratuz eta herritarren ohiturak batzeko galdetegia egingo dute. 14-17 urte bitarteko gazteek, berriz, udal instalazioak ikuskatuko dituzte eta herrian erabilgarri diren euri uren kalkulua egingo dute. Azkenik, Miguel Altunako

DATUA

3

HERRI

Bergaraz gain, Oñatin eta Elgetan ere egiten dihardute Eskolako Agenda 21 programa. Guztira 11 ikastetxek dihardute zeregin horretan, eta denetan ari dira ura aztertzen.

ikasleek industriak errekarako egoeran duen eragina landuko dute.

ITURRIAK ETA EURI URA

Programaren barruan Udalera ere jo zuten iaz ikasleek. Herriko iturriak konpontzeko eta euri urak aprobetxatzeko eskaria egin zuten. Bada, aurtan, horren jarraipena ere egingo dute eta Udalari hobetzeko proposamenak luzatuko dizkiete herri iraunkorragoa lortzeko bidean.



GOIENKARIA

San Joxepetik zuzendaritza berria dauka

San Joxepe erretiratu elkarteak zuzendaritzako kide bat berritu zuen duela bi aste egindako batzar orokorrean. Hala, zuzendaritza berria honako kideek osatzen dute: lehendakaria, Carlos Arrondo; lehendakariordea, Rosa Mari Larrañaga; idazkaria, Maite Suinaga; diruzaina, Jose Ignacio Beristain; eta kideak, Begoña Garitano, Mari Carmen Otaola, Antolin Marchena, Maria Eugenia Silanes, Benjamin Lazkano eta Jose Garitano.

oharrak

LEHIAKETA

> Azken egunak izena emateko Musika Moderno Lehiaketan

Musika Eskolak antolatu du lehiaketa. Talde ez profesionalendako lehiaketa da eta modalitate bakarrera mugatuta dago: musika modernoa. Lehiaketa izango da apirilaren 26an. Izenematea martxoaren 16an bukatuko da. Izenematea eta informazio gehiago 943 76 57 80 telefono zenbakian.

DEIALDIA

> Orfeoia urteko batzarra egingo du martxoaren 10ean

Lehenengo deialdia 21:00etan izango da eta bigarrena 21:30ean. Entseguetarako erabiltzen duten lokalean izango da batzarra -Erregetxo plaza- eta bazkideei joan daitezten dei egiten diete.

ZOZKETA

> Ipintza institutuko zenbaki sari-tuak atera dira

Ipintza institutuko ikasle taldeak ikas bidaian joateko ateratako txarteletako zenbaki sari-tuak dira: 1.178, 1.025, 613, 159, 819, 608. Irabazleek otarrea jasoko dute. Martxoaren 13a da saria jasotzeko azken eguna, Ipin-

tzan. Sarietako bat jaso barik geratzen bada, berriz zozkatuko dute.

HITZALDIA

> Nafarroako gazteluen gaineko hitzaldia

Nafarroako gazteluak delako hitzaldia egingo du Iñaki Sagredok eguaztenez hilak 11, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

JARDUNALDIAK

> Familia enpresaren iraupenerako tresnak emango dituzte

Bihar, martitzena, eta hilaren 16an izango dira jardunaldiak, 16:00-19:30 orduetartean, Miguel Altunan. Izena emateko deitu 943 00 03 09 zenbakira edo idatzi avaqueriza@camaragipuzkoa.com helbidera. Sarrera doan da.

UDAL ZERGAK

> Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

Zergaren 2009ko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea hasiko da martxoaren 2an eta bukatuko da maiatzaren 29an. Egundik horretatik aurrera errekaragurekin kobratuko dute.

LANAK > ARGIZTATZEA

Parrokiako erretaula nagusietako argiztatzea berritu egingo dute

Aldundiaren eta Udaleko Turismo batzordearen laguntzarekin, Ikustek enpresak berrituko du Mikel Goiaingerua parrokiako argiztatzea

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Mikel Goiaingerua parrokiako argiztatzea berritu egingo dute datozen asteotan. Eguenean jarri zuten aldare nagusian aldamia, lanak egin ahal izateko. "Behar-beharrezkoa da argiztatze berria ipintzea, batez ere elizaren sarretan", esan digu Joxan Larrañaga parrokoak.

Aurrekontua Foru Aldundiaren eta Udalaren Turismo Departamentuaren artean ordainduko dute, eta lanak Ikustek enpresak egingo ditu.

ALDAMIOA JARRI DUTE

Industria Sailak agindutako segurtasun neurriak betetzeko, parrokiako argindar instalazioa aldatu zuten lehenengo. Oraingo honetan, erretaula nagusiko eta

elizako bi sarreretako argiztatzea berrituko dute. Aldare nagusiko erretaularen argiztatzea era berezian aldatuko dute: hain justu ere, erretaulako santu eta irudien argiztatzea bakarka berrituko dute. "Aldare nagusiak duen edertasuna eta balioa agerian

geratuko da argiztatze berriarekin", esan digu Joxan Larrañagak. Bestalde, Pietateko eta Errosario kaperetako erretaulatan lan orokorrak egingo dituzte. Hain justu ere, argi-puntuak habetan jarriko dituzte.

KRIPTAKO SARRERA

Unibertsitate etorbideko eta plaza aldeko sarreretako argiztatzea indartu egingo dute. "Azkenaldian hainbat erorketa egon dira sarreratan ilun dagoelako. Arrisku hori ezabatu eta arazoa konpondu nahi dugu", dio Larrañagak. Bestalde, aldare nagusiaren azpian dagoen kriptako sarrera argiztatu egingo dute.

Lanak martxo bukaera aldera bukatuko dituzte Ikustek enpresako langileek.

ESANAK

"Parrokiako sarrerak oso ilunak dira, eta hainbat erorketa egon dira; argi gehiago jarriko ditugu arriskua ezabatzeko"

Joxan Larrañaga > Parrokoa

oharrak

DEIALDIA

> **Aloña Mendiko nesken futbol taldean ibilitakoek bazkaria egingo dute**

Maiatzaren 23an egingo dute bazkaria, baina aurretik partidua jokatu dute Azkoain. Bazkarira joan gura duenak 30 euro sartu beharko ditu 21010057530126831502 zenbakian.

HITZALDIA

> **Etorkinen integrazioaren gaineko hitzaldia ikastolan**

Huheziko irakasle eta kultura aniztasun gaietan aditu Amelia Barquinek etorkinen gaineko hitzaldia egingo du hilaren 11n, 18:30ean. Ikastolako guraso guztiak daude gonbidatuta.

ERAKUSKETA

> **Onddoen gaineko erakusketa Natur Eskolan**

Onddoen gaineko erakusketa hilaren 18ra arte dago zabalik Natur Eskolan, 18:00etatik 20:00etara.

ERAKUSKETA

> **Frankismoak eragindako biktimen gaineko erakusketa**

Izen guztiak, aurpegi guztiak delako erakusketa dago kultura etxean, martxoaren 18ra arte.

DEIALDIA

> **Trikiti bazkaria egingo dute Lizargaraten**

Domekan trikiti bazkaria egingo dute Larrain Gain elkartean, Laja eta Narbaiza trikitalariekin. Bazkarirako txartelak Urba eta Umerez tabernatan eros daitezke.

DEIALDIA

> **Egubakoitzean odol ateratzea egingo dute**

Odol Emaileen Elkarateak antolatuta odol ateratzea egingo dute barikuan ikastolan, 18:30etik 20:30era.

BIRZIKLAPENA

> **Birziklatutako olio batuko dute zapatuan**

Etxeko olio birziklatua biltzen duen Puntu Berde Mugikorra plazako aparkalekuan egongo da zapatuan, 09:00etatik 13:00era.

INFORMATIKA

> **Ikastaroak KZgunean**

Martxoan hainbat ikastaro egingo dituzte KZgunean. Ikastaroen gaineko informazio nahi dutenek edo izena eman nahi dutenek 943 71 83 20 telefonora dei dezakete edo www.kzgunea.net helbidean begira dezakete, 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era.

Luis Duran > Komikilaria

"Komikiak nahiago ditut ilustrazioak baino; komikietan irudia egin eta gidoia idazteko aukera daukat"

M.B. > OÑATI

Luis Duran (Oñati, 1967) komikilariazken lana argitaratu berri du, *El mago descalzo*. Madrilen bizi da aspaldi, baina ez du Oñati ahaztu. Komiki berriaren kontatzen duen historia Oñatin gertatutako pasadizo baten oinarritzen da. Harekin egin dugu berba, telefono bidez, komiki berriaren gainean.

El mago descalzo komikia kale-ratu berri duzu.

Bai, hala da. *El mago descalzo* 240 orriko eleberri grafikoa da, Ediciones La Cupulak argitaratu duena. Egia esan, gogo handia nuen argitaletxe horrekin lan egiteko, izen handiko idazleekin egiten du-eta lan.

Nire komikiak irakurtzen dituztenak konturatuko dira lan berriaren bilakaera gertatu dela, batez ere kontrasteetan eta bolumentan. Komikian kontatzen duen istorioa herri txiki batean kokatzen da.

Pozik zaude emaitzarekin?

Bai, edizioa oso ona izan da, eta gustura nago. Gainera, due-la gutxi esan didate salmenta oso ondo doala. Komiki asko saldu ditut; hortaz, oso pozik nago.

Zure burua istorio kontalari moduan aurkezten duzu. Ze kontatzen duzu azken komikian?

Corpus eguneko prozesioko irudiak galdu ez daitezten borrokan dabiltzan kofradiakide batzuen istorioa kontatzen dut. Benedikto XV.ak jarritako debekuaren aurrean gogor egiten dute lan. Istorioa herrian bizi diren hiru umeren ikuspegitik kontatzen dut.

240 orriko komikia da. Ez da luzeegia?

Ez, behar duen luzera eman diot. Eleberrieekin egiten den moduan, komiki bati ez zaio mugarik jarri behar orri kopuruan.

Nortzuek irakur dezakete liburua?

Nik uste dut edonork irakur dezakeela liburua. Liburuaren aurkezpenetan ikusi dut adin askotariko irakurleak ditudala.

Komikiak egin aurretik ilustrazioak ere egin dituzu. Zer nahiago duzu?

Nahiago dut komikiak egitea. Ilustrazioetan marrazkiak

bakarrik egiten ditut, eta komikietan marrazkiak egin eta testua idazteko aukera dut.

Sari asko jaso dituzu. Baduzu gogokorik?

Ez. Uste dudana da askotan garrantzi handia ematen zaiela sariari. Dena den, gustatzen zait sariak eta aipamenak jasotzea.

Komikiek bizi izateko beste ematen dute?

Artearekin zerikusia duten lanekin bizi izatea oso zaila da; besteak beste, musikarekin, literaturarekin eta komikiekin. Dena den, gurako nuke, eta horretarako dihardut lanean.

Urte asko dira Oñati utzi eta Madrilera joan zinela. Gogoa duzu Oñati?

Oñatin jaio nintzen, eta ez dut ahazten. Askotan joaten naiz, ahal dudan guztietan. Gainera, komiki berria Oñatin gertatutako istorio baten oinarritzen da.

Ze proiektu dituzu esku artean?

Hurrengo urtean argitaratuko dudan liburu batekin dihardut. Koloretan egingo dute.



Luis Duran oñatiarra komiki batean lanean.

LUIS DURAN



Eskoriatzako Intxaurtxuetako sarbidea itxita egongo da barikura arte 21:00etatik 06:00etara.

MIRIAN BITERI

AZPIEGITURAK > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

AP-1eko lanak direla eta, barikura arte itxita dago Intxaurtxuetako sarbidea

Eskoriatzara sartu edo irteteko Aingeru Guardatik joan behar dira gidariak 21:00etatik 06:00etara

Horretaz gain, GI-627 errepidean txandakako bide mozketak egingo dituzte ordu berean semaforo baten bidez

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA
Eibar-Gasteiz autobideko Eskoriatzako sarrerako biribilgune-ko lanak direla eta, Eskoriatzako iparraldeko sarbidea -Intxaurtxuetakoa- itxita egongo da asteon ibilgailuendako, bai sartzeko eta baita irteteko ere. Eskoriatzako udaltzainek jakinarazi digutenez, tarte horretan herri-ira sartu edo irteteko Eskoriatzako hegoaldean dagoen Aingeru Guardako biribilgunea erabili beharko dute gidariak.

Gaurtik egubakoitzera bitartean, martxoaren 9tik 13ra, 21:00etatik 06:00ak arte egongo da

itxita esandako irteera. Zapatuan, martxoak 14, berriz, goiz osoa emango du itxita.

TXANDAKAKO BIDE MOZKETAK
Horretaz aparte, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Saisetik azaldu dute astotan toki berean txandakako bide mozketak egingo direla; hau da, GI-627 errepideko 29. kilometro puntuan.

Jakina denez, San Bernabeko biribilgune horretan GI-627 errepidea eta Gasteiz eta Eibar elkartuko dituen AP-1 autobidearen arteko lotunea jarriko dute. Azpie-

gituretako Sailak duen lanen programan aurreikusituz, txandako bide-lerroen mozketak gaur hasiko dira eta egubakoitzera arte, martxoak 13, iraungo dute; 21:00etatik 06:00etara.

Horretarako, semaforoa jarriko dute. Hori arduratuko da txandak emateaz. Diputazioetik aipatu dutenez, mozketak horien bidez, langileendako eta bidaiariendako segurtasuna zaindu gura dute.

AGLOMERATUA ZABALDU

Diputazioak azaldu du biribilgunean aglomeratua zabalduko dutela. Lanak ez dira egubakoitzean amaituko. Zapatuan, hilak 14, bideko markak pintatzen eta bazter bionda jartzen ibiliko dira egunean zehar langileak.

Azkenaldian hainbat alditan aldatu dute San Bernabe ingurunean trafikoa. Orain dela aste batzuk autobidea eta GI-627 lotuko dituen biribilgunea egiten hasi ziren eta gidariak hainbat alditan desbideratu dituzte. Horrek trafikorearen moteltzea eragin du, askotan auto ilarak sortuz.

> ESKORIATZA

Bihar Xabier Paya bertsolaria egingo du hitzaldia

Asteotan ere hitzaldia dago Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Oraingoan, baina, Luis Ezeiza ikastetxeak antolatuko du. Bihar, martitzena, Xabier Paya bertsolari bizkaitarrak eskainiko du esandako hitzaldi hori.

Huhezin gaztelaniazko eskolak ematen dituen Algotako gazteak bere bizipenak eta oroitzenak kontatuko dizkie hara joaten direnei. Hain zuzen ere, familia erdaldu batean jaiotako bertsolari txapeldun baten esperientziaren berri zabal emango du Payak.

Hitzaldiaren hitzordua 18:00etan jarrita dago, esan bezala, Ibarraundin.



JOSETXO ARANTZABAL

Giro ederra egon zen Azkoaga Eneko dastatzean

Joan den otsailaren 28an Eskoriatzako Azkoaga Enea hotolean Bizkaiko Txakolina jatorri-deiturako 2008ko uztaren aurkezpena egin zuten. Jendeak ez zuen huts egin eta Bizkaiko sei upeltegiko saldak dastatu zituzten jantokian. Batzuek, hala ere, nahiago izan zuten tabernan geratzea eta upeltegi horietako bi txakolin eta egun horretarako gertatutako kanapeak hartu. Azkoaga Eneko arduraduna oso pozik dago ekimenak izandako harrerarekin.

> ARETXABAETA

Basotxok batzar orokorra egingo du bihar bere egoitzan

Basotxo elkarteak erretiratuetarako ohar pare bat bidali ditu. Batetik, gogorarazi du bihar, martitzena, batzar orokorra egingo dutela egoitzan. Batzarra 17:00etan hasiko da. Zuzendaritzak bazkide guztien partaidetza eskatu du.

Bestetik, jakinarazi du apirilaren 13tik 19ra Portugalera bidaia egingo dutela. Lisboa eta inguruneak ezagutuko dituzte. Horretarako izena eman gura dutenak, martxoaren 10ean, 11n eta 12an egoitzara joan beharko dira, 11:00etatik 12:00etara.

> ARETXABAETA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen tasa ordaindu behar da

Aretxabaleako Udalak 2009ko trakzio mekanikoko ibilgailuen urteko tasak dagoeneko ordaindu daitezkeela jakinarazi die ibilgailua duten herritarrei.

Borondatez ordaintzeko epea 60 eguneko izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera. Iragarkia joan den eguaztenean, martxoak 4, argitaratu zuten. Betiko moduan, aurrezki kutxa edo banketxeen bidez ordaindu behar da.

> ARETXABAETA

Mitarteko lanetarako kontrataziorako deialdia egin dute

Aretxabaleako Mitarte kaleko Hornikuntza eta Saneamendu Plan Bereziko lanak egiteko kontrataziorako deialdia egin du Udalak. Lizitazio oinarriaren aurrekontua 793.916,48 eurokoa izatea zehaztu du Udalak.

Dokumentazioa eta informazioa gura dutenek Basabe poligonoan dagoen Atai kopia-dendan izango dute eskura. Martxoaren 17ra arte aurkeztu ahaliko da dokumentazioa herriko udaletxean.

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8

Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAETA



Aldundiak Aixola Goikoa baserrian zabalduko du adin txikiko etorkinendako zentroa.

LARRAITZ ZEBERIO

ELGETA > ADIN TXIKIKOENDAKO ZENTROA

Aixolan adin txikiko etorkinendako zentroa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Aixola Goikoa baserria erosi du zentroa bertan zabaltzeko

A.E./L.Z. > ELGETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgetan adin txikiko etorkinendako zentroa zabalduko duela jakinarazi du.

Elgetatik lau bat kilometrora, Aixola urtegiaren zabalduko du Aldundiak harrera zentro berria; Aixola Goikoa baserrian, hain zuzen ere. Etxeak 402 metro koadro ditu eta hutsik egon da azken zortzi urteotan.

Salerosketa operazioa duela hiru bat aste egin zuten, eta zentroa zabaldu aurretik egokitzapen

lanak egin beharko dituzte. Eguenean, eta Udalak eskatuta Aldundiko bi teknikari Elgetan izan ziren herritarrei eta udal ordezkariari informazio gehiago emateko.

HERRITARREN GALDERAK

Integrazio arazoak dituzten 16-20 adin txiki etorkin hartuko ditu Aixolako zentroak. Zaintza lanetarako arduradun bat, hiru begirale eta segurtasuneko bi lagun egongo dira. Horrela azaldu zuten egueneko batzarrean Diputazioari adin txikiko pro-

gramako koordinatzaile Iñaki Bengoetxeak eta Aixolako zentroan zuzendari pedagogikoa izango den Mikel Lizarragak. Diputazioa izango da gazte horien arduraduna, eta Udalak ez du zentro horrekiko inongo eskumenik izango. Hau da, Elgetako Udalak ezin du proiektua atzera bota.

Egueneko batzarrean batutako herritarren galdera gehienak zerbitzuaren eta segurtasunaren ingurukoak izan ziren. Udalak hiru eskaera argi egin dizkio Diputazioari: zerbitzu egokia emateko, lekua modu egokian prestatzeko eta segurtasun neurriak behar den moduan betetzeko. Proiektua lehenbailehen aurkezteko ere eskatu du.

ANTZUOLA > ARGAZKILARITZA

Herriko txokoak iruditan jasotzeko argazki lehiaketa antolatu du Udalak

Helburu nagusia da herriko txokoak ezagutaraztea eta bazter ezagun zein ezezagunen berri ematea antzularrei

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Antzuolako txokoak izenburupean argazki lehiaketa antolatu du Udalak bigarren aldiz. Izenburuak berak dioen moduan, Antzuolako txoko bat izango da argazkiaren gaia. Izan ere, lehiaketaren helburu nagusia da

Antzuolako bazterrak ezagutaraztea. Kaleak, baserriak, iturriak, zubiak, mendiko zein herri barruko edozein txoko har daiten argazkiaren gaitzat.

Argazkiak 30x40 zentimetroko krema koloreko kartulinan itsatsita aurkeztu beharko dira, eta argazkiaren neurria gehienez 25x35 zentimetro izango da.

Kartulinaren atzean argazkiaren izenburua ipini beharko da, eta horrekin batera izenburu bera izango duen gutun-azal itxi batean egilearen datuak: izen-abizenak eta telefonoa. Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira eta azken eguna apirilaren 30a izango da.

SARIAK

Lehiaketan hiru maila bereizi dituzte antolatzaileak: lehen maila, 6 eta 14 urte bitartekoak; bigarren maila, 15 eta 25 urte artekoak; eta hirugarren maila, 26 urtetik gorakoena.

Sariak ere mailen arabera banatuko dituzte eta maila bakoitzean bi diru sari izango dira: lehen mailan 20 eta 15 euroko sariak; eta bigarren eta hirugarren mailetan, lehen saria 150 euro izango da eta bigarrena 90 euro.

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiekin erakusketa egingo da maiatzean, antzularrek herriko txokoak ikusteko.

ARAMAIO > ZUHAITZ EGUNA

Eguraldi txarragatik, atzeratu egin dute Zuhaitz Eguna

Barikuan Lehen Hezkuntzakoek Kurtzetan landaketak egingo dituzte; gaztetxoek martxoaren 18an ospatuko dute Zuhaitz Eguna

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Eskolako txikitxoek guztia prest zeukaten joan den barikuan kalera atera eta herriko parkeetan zuhaitzak landatzeko. Baina eguraldia ez zuten lagun izan, eta irteera atzeratu egin behar izan dute. Azkenean ere, martxoaren 18an ospatuko dute haur eskolako umeei Zuhaitz Eguna; eskulana eta jolasak ere egingo dituzte egun horretan, zuhaitzak landatzeaz gainera.

Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek, berriz, eguraldiak laguntzen badie,

behintzat, barikuan egingo dituzte landaketak. Lehen Hezkuntzakoak Kurtzetara joango dira autobusez eta hantxe haginak landatuko dituzte. Hamaiketako goxoa jan ostean jolasak ere egingo dituzte.

Bigarren zikloko ikasleei orain dela urte batzuk egindako lanaren jarraipena egitea egokitu zaie: Santa Ana basilizan egindako landaketan altzifre berriak sartuko dituzte eta daudenak zuzendu egingo dituzte. Horrela jarraituz gero, zuhaitzi sendoak sortuko dituzte Aramaioko gaztetxoek.



Joan den urtean ere gaztetxoek fin jardun zuten zuhaitzak landatzen. GOIENKARIA

LEINTZ GATZAGA > ARGINDARRA

Transformadore berria hil honetan hasiko da lanean

Iberdrolaren baimenaren zain dago lanak bukatu eta martxan jartzeko

na uste baino luzeago doa kontua. Lanak bukatuta daude -txabola berria eta dorrea, zahararen alboan-, baina garrantzitsuena geratzen da egiteko: argindarra transformadore berritik banatzea.

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Udalak ez daki data zehatzik, baina martxoa bukatu aurretik lanean gurako luke transformadore berria. Iberdrolaren zain dago, baimena noiz emango zain; izan ere, lanak guztiz bukatzeko argindarra kenduko dute egun baten eta transformadore zaharretik berrira aldatuko dituzte argindar hartuneak orduan. Egun hori zein den dakienean, Udalak behar bezala iragarriko die herritarrei, argindarra kendu aurretik.

2008ko negurako lanok bukatuta izango zituztela uste zuten udal arduradunek, bai-

IBERDROLARI EROSI ETA BANATU

Gipuzkoan hiru herritan bakarrik banatzen du udalak argindarra: Tolosan, Oñatin eta Gatzagan. Eta Aramaion ere bai. Herri batzuetan argindarra sortu egiten dute eta gero hori banatu, baina Gatzagan ez; Udalak Iberdrolari erosten dio, gero herritarren artean banatzeko: "Hemendik aurrera gero eta traba gehiago izango ditugula uste dugu, baina oraingo jarraitu egingo dugu banatzen. Energia berriztagarriekin aukera polita izan dezakegula ere badiote batzuek", azaldu digu Eusebio Villar alkateak.

Kirola



> FUTBOLA
Aretxabaletak 3-0 irabazi dio Amaiak Bat taldeari Ibarren preferente mailako lehia > 22



> SASKIBALOIA
Mondragon Unibertsitateak jaitziera faseko lehenengo lehia irabazi du > 24



> ESKUBALOIA
Aloña Mendiko gazte mailako neskek galdu egin dute Kukullagaren aurka etxean > 25

MENDIA > OÑATI

Patagoniako ikus-entzunezkoa bihar, mendi astea zabaltzeko

MENDI ASTEA

Oñatiko mendi astea martxoaren 10etik 15era izango da

BIHAR, MARTITZENA

Ivan Urtzelai oñatiarrak irekiko du emanaldien zikloa

KULTURA ETXEAN

Emanaldi guztiak Kultura etxean izango dira 19:30ean; eguenekoa 20:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Urteroko hitzorduari kale egin barik, aurten ere Aloña Mendik Mendi astea antolatu du. Bihartik aurrera, hainbat bideo emanaldi, mendi irteera eta ikastaro antolatu dituzte, herritarrek mendiaz gozatzeko.



'FREERIDE' Aloña Mendik antolatutako argazki lehiaketan Alpinismo saria irabazi zuen kartela ilustratzen duen argazkiak; Aloña Mendik utzi digu argazkia. JOSEBA LETURIA

Emanaldien egitaraua

Martxoak 10, martitzena

19:30 *Bidaia eta eskaladak Patagonian* lana erakutsiko du Ivan Urtzelai oñatiarrak.

Martxoak 11, eguaztena

19:30 *Far West 2008*. AEBetako mendebaldean egindako boulder eskaladaren gaineko lana.

Martxoak 12, eguena

20:00 Zineklubaren barruan *La montagne perdue* filma. Sarrera hiru euro izango da.

Martxoak 13, egubakoitza

19:30 *Kirgistan, granitoko mendiak* izeneko bideo emanaldia Tasio, Goierri eta Txirritaren eskutik.

*Kultura etxeko zinema aretoan izango dira emanaldi guztiak.

BERTAKO MENDIZALEAK

Helburu konkretu barik antolatzen dutela mendi astea adierazi digu AloñaMendi mendi Saileko kide den Aritz Biainek: "Mendiari buruzko zerbait herriari ematea gura dugu".

Biainek dio saiatzen direla aste batean alpinismoa, eskalada, bidaia... denetik sartzen. "Orain arte puntako jendea ekarri izan dugu, erdi profesionalak direnak. Aurten, ostera, ahalegin du gara bertako jendea, inguruko ekartzen", azaldu du Biainek aurtengo egitarauaz galdetuta. Hala, Ivan Urtzelai oñatiarrak hasiko du emanaldien zikloa.

Bihar, martitzena, 19:30ean emango du *Bidaia eta eskaladak Patagonian* ikus-entzunezkoa. "Hemen inguruko mendietan

hara joan ahal izateko egin zuen entrenamendua erakusten du, eta baita bidaia bera ere. Aireportutik Patagoniarako bidaia

ESANAK

"Orain arte puntako jendea ekarri izan dugu mendi astera; aurten, ostera, inguruko jendea ekarriko dugu"

Aritz Biain > Mendi Saileko kidea

"Eguenean emango dugun filmak iaz Torelloko mendi zinema lehiaketa irabazi zuen; polita izango da"

Aritz Biain > Mendi Saileko kidea

eta azkenik, han egindako eskalada erakusten du", dio Biainek.

Mendi Sailak azpimarratu gura izan du egueneko filma: "*La Montagne perdue* filmak iaz Torelloko mendi zinema lehiaketa irabazi zuen", azaldu du Biainek. Emanaldia 20:00etan izango da, sarrera hiru eurotan dago.

MENDI IRTEERAK

Datorren aste bukaeran mendiko eski irteera antolatu dute Piriñoetan. Dagoeneko plaza guztiak beteta daude. Bestetik, domekarako Itxinako ingurune karstikokoan ibilaldia antolatu dute; 08:00etan izango da irteera.

PREFERENTE MAILA > ARETXABALETA-AMAIKAK BAT

Partidu motela izan zen, baina nahikoa hiru puntuak lortzeko

Baloiaren jabetza izan arren, kosta egin zitzaien arriskua sortzea ate inguruan

Bigarren zatian epaileak Amaikak Bat taldeko bi jokalaririk egotzi zituen

ARETXABALETA

3-0

AMAIKAK BAT

Aretxabaleta > Unda, Artetxe, Gomez (Uri-betxeberria, 50. min.), Leonardo, Iturbe, Astola (Sanchez, 83. min.), Erico, Heriz, Espinosa, Rodriguez (Garai, 70. min.) eta Lopez (Aitor, 73. min.).

Amaikak Bat > Zabala, Salegi, Badiola (Hidalgo, 81. min.) Indamendi, Canales, Ariznabarreta, Guruceta, Rementeria, Gomez eta Egaña.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA
Partidu motela izan zen atzo Aretxabaletak eta Debako Amaikak Bat taldeak jokatu zutena. Partidu guztian zehar etxeko taldeak izan zuen baloiaren jabetza; hala ere, gola egitea kosta egin zitzaien. Behin lehenengoa egin da, beste biak samur egin zituzten Aretxabaletako jokalariek.

JAURTIKETA GUTXI

Gordobilek eta Arenazak ohiko hamaikakoarekin hasi zuten partidua. Baloiaren jabetza izan zuten zelai erdian; Ivan Lopezek ondo mugitu zuen baloia ezker eta eskuin, baina inolako arriskurik sortu gabe aurkariaren ate inguruan.



Ivan Lopez jaurtiketa egiteko gertu aurkaria begira duela.

JOSETXO ARANTZABAL

Hala, ia ez zen jaurtiketarik ikusi lehenengo zatian. Gola 35. minutuan iritsi zen. Kontraeraso batean Amaikak Bat taldeko atezainak Imanol Rodriguezek egindako jaurtiketa kornerrera aldatu zuen. Korner haren ondorioz, Gorka Iturbek baloia sareetan sartu zuen. Bat eta hutsekoarekin joan ziren aldagelara.

BI JOKALARI GEHIAGO

Bigarren zatiko 10. minutuan epaileak Amaikak Bat taldeko jokalaririk egotzi zuen falta itsusi baten ondoren. 20. minutuan, aldiz, beste jokalaririk egotzi zuen, oraingoan zelai erdian kontraeraso bat mozteagatik. Ondorioz, etxeko taldea bi jokalaririk gehiagorekin geratu zen. Aretxabaletak ez zuen arazorik izan golak egiteko: Oinatz eta Espinosa izan ziren golegileak.

Atzokoarekin Aretxabaleta bigarren postuan mantentzen da, lehenengoarekin berdinduta. UDAko jokalaririk Astolak dio "ilusioz" daudela mailaz igotzeko. Uste du talde ona dutela, baina "zortea" ere beharko dutela.

Atzokoarekin Aretxabaleta bigarren postuan mantentzen da, lehenengoarekin berdinduta. UDAko jokalaririk Astolak dio "ilusioz" daudela mailaz igotzeko. Uste du talde ona dutela, baina "zortea" ere beharko dutela.

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Aretxabaletak lider jarraitzen du etxean Antiguokorekin 1-1 berdindu ondoren

Aretxabaletako gazte mailako mutilek Euskal Ligako lehenengo postuari eusten diote zapatuan etxean Antiguokoren aurka 1-1 berdindu ondoren. Partidua nahiko parekatua izan zen. Etxeko taldeak lehenengo zatian egin zuen gola: Eskibel izan zen golegilea. Aretxabaletako mutilak ahalegindu ziren euren atea hutsean mantentzen; baina, bigarren zatian Antiguokok gola egin zuen. Hala, banako berdinketarekin amaitu zen partidua eta bi taldeek puntuak banatu zituzten.

Zapatuko emaitza eta gero, Aretxabaletako taldeak Euskal Ligako lehenengo postuan jarraitzen du 58 punturekin. Datorren astean Leioara egin beharko dute bisita aretxabaletarrek; hain zuen, bigarren postuan dagoen taldearen etxera. Esan daiteke, garrantzitsua eta erabakigarria izango dela datorren asteko lehia. Izan ere, partidua irabazten duenak sailkapeneko lehenengo postua eskuratu dezake; edo, Aretxabaletaren kasuan, lehenengo postuan jarraitu. Datorren astekoarekin, bost partidurik falta dira Euskal Liga amaitzeko. Esan behar da, apirilaren 5ean Aretxabaletak Bergararen aurka jokatu duela. Derbia izango dugu, hortaz.

Iban Astola > Aretxabaletako jokalaria

"Aurkariak atzean sartuta egon dira eta kosta egin zaigu atea zulatzea"

Nola ikusi duzu Amaikak Bat taldearen aurkako partidua?

Nahiko partidua motela izan da, bai jokalaririk eta baita ikusleendako ere. Atea zulatzea kosta egin zaigu; baina behin lehenengo gola eginda lasaia jokatu dugu.

Baloiaren jabetza izan arren, kosta egin zaizue atea zulatzea.

Bai, hori pasatzen da horrelako partiduetan. Atzean sartuta egon dira eta guri kosta egin zaigu sartzea. Behin gola eginda eurak aurrera irten dira; hala, beste golak etorri dira.



A.E.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Hernani	46	24
2. Aretxabaleta	46	24
3. Tolosa	43	24
4. Pasaia	43	24
5. Trintxerpe	41	24
6. Aloña Mendi	41	24
7. Hondarribia	39	24
8. Real union	39	24
9. Berio	37	24
10. Idiazabal	35	24
11. Ondarroako Aurrera	30	24
12. Mondra	26	24
13. Euskalduna	25	24
14. EHU Vasconia	20	24
15. Mundarro	19	24
16. Zumaia	19	24
17. Anaitasuna	17	24
18. Amaikak Bat	16	24

Emaitzak

Berio-Anaitasuna	3-0
Aloña Mendi-Pasaia	1-2
Mondra-EHU/UPV Vasconia	3-1
Tolosa-Real Union	3-3
Astig. Mundarro-Hondarribia	1-0
Idiazabal-Aurrera	1-0
Aretxabaleta-Amaikak bat	3-0
Euskalduna-Zumaia	1-1
Trintxerpe-Hernani	1-3

Hurrengoak

Pasaia-Berio	
EHU Vasconia-Aloña Mendi	
Real Union-Mondra	
Hondarribia-Tolosa	
Ondarroako Aurrera-Astig. Mundarro	
Amaikak Bat-Idiazabal	
Zumaia-Aretxabaleta	
Hernani-Euskalduna	
Anaitasuna-Trintxerpe	

BESTELAKOAK

LEHEN ERREGIONALA

Antzuola-Orioko	3-0
Lagun Onak-BTLS	1-1
Urola-Aretxabaleta	3-0
Zestoa-Mondra	1-0
Bergara-Mutrikuko	0-3

BIGARREREN ERREGIONALA, IGOERA

Bergara-Amaroz	4-0
----------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Oiartzun-Aloña Mendi	3-3
----------------------	-----

1. MAILAKO GAZTEAK, IGOERA

Pasaia-Mondra	0-1
---------------	-----

1. MAILAKO GAZTEAK, KOPA

Ikasberri-Bergara	3-2
Soraluze-UDA Arizmendi	1-5

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Aretxab. Arizmendi-Urola	3-2
Bergara-Antiguoko	1-4

OHOREZKO KADETEAK, KOPA

Lengokoak-Arrasate	3-2
Ostadar-Aloña Mendi	0-3

KADETEEN 1. MAILA, IGOERA

Aretxabaleta-Oiartzun	3-1
-----------------------	-----

KADETEEN 1. MAILA, KOPA

Arizmendi-Ikasberri	1-4
Aloña Mendi-Bergara	0-3

EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA

Arizmendi-Allerru	3-3
Intxaundi-Mondra	0-1

EMAKUMEZKOEN KOPA

Amaikak Bat-Aloña Mendi	1-0
Eibartarrak-Arizmendi	2-0

EMAKUMEZKOEN F-11 KADETEAK

Bergara	atsedena
Arizmendi-Lagun Onak	1-3
Luberri-Mondra	4-0

EMAKUMEZKOEN F-8 KADETEAK

Amara Berri-Aloña Mendi	2-0
-------------------------	-----

FUTBOLA > ALOÑA MENDI- PASAIA

Hiru puntuek ihes egin zuten hiru minututan

Ez zen joko onik ikusi Azkoagainen. Bigarren zatian Aloña hamar jokalarirekin gelditu zenean etorri ziren golak; hala ere puntuek ihes egin zuten



Unai Arregik lan ona egin zuen hegalean.

JOSETXO ARANTZABAL

ALOÑA MENDI

1-2

PASAIA

JASONE ZABALA > OÑATI

Azken hamar minututan jokatu zuten futboleak bi taldeek atzo. Lehen zatian ez Aloñak ezta Pasaiak ere ez zuten partidua kontrolatu. Lehen zatiko aukera bakarrenetarikoa Unai Arregik izan zuen oñatiarrendako, baina baloia langara joan zen; Pasaiak ere izan zuen aukeraren bat.

HAMAR JOKALARIREKIN

55. minutuan Ugartek aukera garbia izan zuen falta jaurtiketa baten bitartez baina zutoinera bota zuen baloia. Azken hamar minututan etorri ziren golak. Oñatiarren atezainaren hutsegite baten ondorioz baloia sare barrura zihola Maiztegik eskuarekin jo zuen eta

epaileak txartel gorriarekin kalera bota zuen. Horrela, Pasaiak lehen gola egin zuen penaltiz 85. minutuan. Hurrengo minutuan, Ugartek berdinketa lortu zuen etxekoendako; eta 87. minutuan Pasaiakoek baloia zelai erditik atera eta hurrengo jokaldian garai-penaren gola lortu zuten.

MONDRA-VASCONIA

Hamaika partiduren ostean, garaipena

Azkargortaren mutilek Vasconia mendean hartu zuten 3 eta 1

J.Z. > BERGARA

Andoni Azkargortaren taldeak arnasa pixka bat hartu du joan zen zapatuan lortutako garaipenarekin, Vasconia taldea 3 eta 1 mendean hartu ostean. Lehen zatian bi taldeak ibili ziren zelaian lekurik hartu ezinda eta bi taldeen jokoa txarra izan zen.

ALDAKETEKIN PARTIDU BILA

Bigarren zatia antzera hasi zen; 25. minututik aurrera Mondra hasi zen agintzen, eta horrela Mercaderrek lehen gola sartu zuen. Etxeko taldeak aldaketa batzuk egin zituen eta partidua bila joan zen. Horrela, Cabrerak bigarrena sartu zuen; Vasconiak egin zuen 2 eta lekoa, baina Cabrerak erabakita utzi zuen partidua hirugarren golarekin.

LEHEN ERREGIONALA

Hiru puntuak Mutrikura joan ziren

Bergarak 0 eta 3 galdu zuen Mutrikuren aurka Agorrosin zelaian

J.Z. > BERGARA

joan zen zapatuan dakiena ondo egin zuen Mutrikuk eta hiru puntuak lortu zituen.

Manu Diazek zuzentzen duen taldeak etxean dituzten arazoak partidua irabazteko eta lehen zatiko zoritxarreko jokaldi bateko golak eta bigarren zatian kontraerasoan egindako beste bik punturik gabe utzi zituen bergararrak.

PAZIENTZIA FALTA

Diazek esan zuen moduan: "Pazientzia falta izan zaigu partidua kontrolatzeko; gainera Mutrikuk aurrelari azkarrak ditu eta jende altua dauka eta hori aprobetxatu dute". Zortzi partidua falta dira liga amaitzeko. Datorren astean Ilintxaren zelaian jokatuko dute.

Maulanda
merenderoa

Eguneko
menua

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

ESKORIATZA > SENIOR NESKAK

Barruko joko eskasa eta baloi galtzeekin, ezin garaipena lortu

Eskoriatzarrak ez ziren partiduan sartu eta akats asko egin zituzten, bai erasoan eta baita defentsan ere

CAFES AITONA A

54-29

ESKORIATZA

Cafes Aitona A > Raya, Amado (2), Otaño (12), García (3), Rodríguez (5), Marcos (4), Hidalgo (9), Gutierrez (11), Usabiaga (2) eta Berra (6).

Eskoriatza > Sanchez (4), Laborda, Carreras (7), Eriz, Alartzia (7), Mentxaka, Usabiaga, Mariñelarena (2), Exposito (7), Soirano (2), Ugalde eta Sologaitza.

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 11-4. Bigarren laurdena: 15-9. Hirugarren laurdena: 13-10. Laugarren laurdena: 15-6.

JASONE ZABALA > BERGARA

Fernando Rasoren neskek ezin izan zuten irabazi Cafes Aitona A taldearen aurka Donostian jokatu zuten igoera faseko bigarren partidua, eta 25 puntugatik galdu zuten: 54-29.

Puntu gutxi sartu zituzten eskoriatzarrek, eta Fernando Raso ez zegoen pozik taldeak era-

kutsitako jokorekin: "Partidu txarra jokatu dugu, ez gara fin ibili ez defentsan ezta erasoan ere", adierazi zuen partidu amaieran.

HASI ETA AMAITU, ATZETIK

Nahiz eta jokalarik pare bat falta zitzaizen zapatuko partidurako hori ez zen aitzakia izan Donostian galtzeko.

Lehen laurdenetik gauzak okertzen hasi ziren (lehen laurdenean lau puntu bakarrik), eta nahiz eta partidua gaizki hasi berdinduta joan zen hasierako minutuetan. Baina Fernando Rasoren neskek baloiak galtzen hasi ziren eta donostiarrek ez zuten aukera galdu kontraerasoan saskiratzek; horrela, zortzi puntuko abantaila lortu zuten hasierako minutuetan.

Kontraerasoek gain donostiarrek taula azpiko jokoa sendotasuna erakutsi zuten erreboteak hartzeko orduan, eta poliki-poliki markagailuko abantaila handitzen joan ziren (lehen zati amaieran 26-13). Eskoriatzarrak saiatu ziren defentsa indibidua-



ERASOA Eskoriatzarrak ez ziren batere fin ibili erasoan jokoa.

GOIENKARIA

la eta zonakakoa txandakaten baina ordurako garaipenak bazuen jabea.

ZARAUTZEN AURKA DOMEKAN

Rasoren neskek zapatuko partidua ahaztu behar dute eta datorren domekan Intxaurtxuetan

Zarautzen aurka jokatu duten igoera faseko hirugarren partidua prestatzen hasi. "Igoera fase hau amaitzeko sei partidua falta zaizkigu eta horietatik lau irabazi beharko genituzke lauko finalerako sailkapena lortzeko", adierazi zuen Rasok.

EMAKUMEZKO GAZTEAK

Liderraren aurka 22-40 galdu zuen Bergarak

Zarautzarrek bigarren zatian hartu zuten markagailuan alde

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA Soraluze BKE taldeko neskek aurkari gogorra izan zuten zapatuan; Zarautz liderra hartu zuten etxean eta ezer gutxi egiteko gauza izan ziren.

Lehenengo zatian gogotsu atera ziren kantxara Xabier Aliagaren neskek. Josean Arteaga delegatuak esan bezala, "motibazio" handia zuten etxeko neskek liderraren aurka jokatzeko. Lehenengo zatian ondo eutsi zuen Bergarak: "Beti atzetik ibili arren, joko polita egin dute".

BIGARREN ZATIAN, BEHERA

Bigarren zatian, baina, etxekoek ezin izan zuten eutsi zarautzarren jokoa. Taula azpian indartsuagoak direla erakutsi zuten; eta, errebote ez eta kontraerasoek baliatu ziren markagailuan alde handitzeko. Azken emaitza 22-40 izan zen zarautzarren alde.

Arteagak gogoratu zuen baja asko izan zituztela zapatuko partiduan; hain zuzen, lau jokalarik ezin izan zuten jokatu. Bergarako taldea sailkapeneko seigarren postuan dago -12 talde dira guztira-.



JOSETXO ARANTZABAL

Jaitsiera faseko lehenengo lehia irabazi egin du Arrasateko taldeak

Pozik zeuden atzo jokalariek eta zaleak Iturripeko kantxan. Tabirakori 81-79 irabazi ondoren, Javi Zurbanoren mutilek jaitsiera faseko lehenengo bi puntuak lortu dituzte. Partidua oso gogorra izan zela azaldu digu Peio Urreta delegatuak: "Tabirako goian egote moduko taldea da, hortaz haien aurka irabaztea oso garrantzitsua izan da". Jokalariek lehen sartuta egon ziren uneoro; gainera, garaipenak goian mantentzeko itxaropena piztu du jokalarien artean. Datorren astean Getxora egingo dute bisita.

GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA > GIZONEZKOAK

Azkeneko minutuetako joko txarraren ondorioz, esku hutsi oñatiarrak

ALOÑA MENDI

70-71

COAATG

na, beste batzuetan ez bezala, zapatuan nahiko txarto jokatu zuten oñatiarrek. Igartuak dio ez zirela "argiak" izan. "Batez ere erasoan galdu ditugu baloi asko", argitu zuen Igartuak partidu amaieran.

BEDERATZI PUNTUKO ALDEA

Partidua amaitzeko bi minutu falta zirenean Aloña Mendik bederatzi puntuko abantaila zuen. Baina, azkeneko minutuan donostiarrek 10-0eko partziala egin zuten, partidua euren alde jarritz.

Esan behar da Aloñak garaipena eskura izan zuela hiruko jaurtiketa batekin; baina, baloia ez zen saskian sartu. Hortaz, puntu bakarrek aldearekin galdu zuten oñatiarrek.

A.E. > BERGARA

Aloña Mendik puntu bakararren aldearekin galdu zuen zapatuan Donostian. Lehia oso berdindua izan zen eta oñatiarrak ia denbora guztian markagailuan aurretik ibili ziren arren, azken unean galdu egin zuten.

Esan behar da, Aloñak etxeko talde bezala jokatu zuen arren, partidua Donostian jokatu zela.

Xabi igartua ohiko taldearekin joan zen Donostiara. Bai-

EUSKADIKO TXAPELKETA > GAZTE MAILA

Kukullagak Aloña baino gehiago dela erakutsi zuen

Euskadiko txapelketako finalerdiak dituzte jokoan; orain, sailkapeneko azkenak dira baina bigarren itzuli guztia falta da



Eskuin hegaleko jokalaria Regueirojaurtiketa egiten, aurkari bi begira dituela.

JOSETXO ARANTZABAL

VERKOL ALOÑA

20-29

KUKULLAGA

Verkol Aloña > Kortabarria, Moreno (1), Larrañaga, Regueiro, Murgiondo (5), Quintas (4), Zabaleta (3), Ibabe (1), Txapartegi (2), Matilla (3) eta Ruiz (1).

Kukullaga > Quijane, Revilla (5), Gabiola, Martínez de los Reyes, Rodríguez (4), González (9), Llana (6), Larrañaga (5), Suarez, Sanchez, Alonso eta Muxika.

Golak > 8-11. Atsedena. 10-16, 11-19, 12-22, 15-23, 19-26 eta 20-29.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Kukullagak argi erakutsi zuen Zubikoan Aloña baino talde indartsuagoa dela. Bizkaitarrek

ez zuten arazorik izan oñatiarrek mendean hartzeko. Bederatzi goleko aldeaz irabazi zuten lehia, eta esan daiteke Euskadi-

ko txapelketako finalerdiak jokatze txartela eskura dutela.

Etxeko taldea, ostera, sailkapeneko azkena da. Bi partidu gal-

du dituzte eta hirugarrena berdin; finalerdietan sartzea zaila duten arren, bigarren itzulian zer egingo duten begira daude.

DEFENTSAN ONDO

Etxeko taldeak ondo hasi zuen Kukullagaren aurkako lehia. Batez ere defentsan ibili ziren ondo etxeko jokalaria. Eric Fuentes entrenatzailea pozik zegoen neskek egindako lanarekin: "Atzealdean ondo eutsi dugu bizkaitarren eraso".

Etxekoak beti atzetik izan ziren arren, jokaldi politak egin zituzten; eta, erakutsi zuten jokaldiak ondo bukatzen dakitela. Hala ere, atsedenera 8-11 galtzen joan ziren.

Bigarren zatian gauzak erabat aldatu ziren. Aldagelatik bueltan bizkaitarrak indartuta kantaratu ziren eta lehenengo 10 minutuetan lehia erabakita utzi zuten. "Erasoan baloi asko galdu ditugu eta horrek aurkarien kontraerasoak ahalbideratu ditu", azaldu zuen partidu amaieran Fuentes entrenatzailea.

44. minutuan etxeko taldeak hutsartea eskatu zuen jokalariek arnasa hartu eta jokoaren norabidea alda zezaten. Hutsarteak eragina izan zuen; handik aurrera, oñatiarrek jokoa berreskuratzen zuten eta alde murrizteko gauza izan ziren. Baina, egindako esfortzua ez zen nahikoa izan Kukullaga bezalako talde indartsua mendean hartzeko. Azkenean, bi puntuek ihes egin zuten.

ARRASATE > EUSKADIKO TXAPELKETA

Defentsa ona erakutsiz eta erasoko jokoan lasai jokatuz, erraz irabazi zuen Mugarrik

URDANETA

21-26

FORD MUGARRI

JASONE ZABALA > BERGARA

Azken emaitza estua izan zen arren, erraz irabazi zuten Edu Orgazen mutilek Urdanetaren kantxan. Talde bizkaitarra azkena da sailkapenean eta zaila izango dute maila eustea. Hala hasierako minutuetatik kontrolpean

izan zuten partidua. Erasoko jokoan zailtasunak izan zituzten arrasatearrek, baina defentsan ondo aritu ziren. Ford Mugarririk jokalaria gutxiarekin joan zen Loiu-ko taldearen aurka jokatzerako; hala aldaketa bakarra egin ahal izan zuten partidu osoan zehar. Dena den, Orgaz saiatu zen erasoko jokoan bi pibotekin jokatzen: "Kostatu zaigu partiduan sartzea: azkar ipini dugu jokoa gure alde eta nahiko errez irabazi diegu", adierazi zigun Orgazek. Dagoeneko lortu dute maila eustea arrasatearrek eta egoera

horretan motibazioa beste bat izaten da: "Egia da motibazioa beste bat izaten dela halako egoeretan, baina nahiko erraz sartu gara partiduan, gainera Urdaneta sailkapeneko azken postuan dago eta beraiek ere badakite nahiko zaila izango dutela aurretik maila eustea".

DATORREN ASTEAN ASKARTZA

Datorren astean Askartzaren bisita izango dute Iturripe kiroldegian; bizkaitarrak aurkari gogorak izango dira dudarik gabe Orgazen mutilendako.

BERGARA > LEHEN TERRITORIALA

Erasoan eta defentsan oreka falta izan zuten etxekoei

Partiduak gorabehera ugari izan zituen; Soraluze BKE taldeak 24-28 galdu zuen

J.Z. > BERGARA

Begararrek sailkapenean atzetik duten Iruneko taldearen aurka ezin izan zuten irabazi etxean (24-28). Partiduak gorabehera handiak izan zituen. Etxekoek 5 eta leko partziala egin zuten irundarrei baina irun-

darrek 1 eta 9koa ere egin zioten Soraluze BKE taldeari; eta horrela izan zen partidu guztia zehar. Defentsako eta erasoko jokoaren artean oreka falta izan zitzaient etxekoei eta egoera hori ederki aprobetxatu zuten irundarrek.

MIN HARTUTA JOKALARIAK

Etxeko taldean jokalaria batzuk zeuden min hartuta; eta hori nabaritu egin zen jokoan; azken txanpan aukera izan zuten etxekoek irabazteko, baina azkenean ezin izan zuten lortu.

SEIN

SEIN-ETXEBERRIA

Garmendipe 1

20730 AZPEITIA-GIPUZKOA

TEL.: 943 15 71 15

FAXA: 943 81 59 22

SEIN-MEMESA

Notario Etxagibel 3

20500 ARRASATE-GIPUZKOA

TEL.: 943 71 24 25

FAXA: 943 71 22 98

SEIN-LAUSA

Pol. Traña-Padura, 4 pabilioia

48220 ABADIÑO-BIZKAIA

TEL.: 94 621 71 40

FAXA: 94 681 75 45

Oihane Urtzelai > Atleta

"Mojategin entrenatzeak markak lortzen lagundu digu"

J.ZABALA/A.EZKIBEL > ARRASATE

Oihane Urtzelai arrasatearrak Euskadiko Atletismo Txapelketa absolutuan salto hirukoitzeko errekorra dauka (10,88 metro). Gainera, errekor hori Arrasateko errekorra ere bada. 17 urte besterik ez ditu Urtzelai, eta sei urte daramatza atletismoan.

Zer suposatzen du zuretako otsailean Anoetan lortutako errekorrak?

Egia esan, sorpresa izan zen niretzat. *Outdoor* denboraldirako luzera jauzian aritu naiz batez ere, eta marka hobetu dudan arren, ez dut lortu espero nuen emaitza. Hortaz, salto hirukoitzean lortzeak izugarriko arnasaldia suposatu du. Atletismoa sakrifizio handia eskatzen duen kirola da. Azken finean, horrenbeste entrenamendu ondoren, emaitzetan eragina izatea gustatzen zaigu denoi, eta azkenaldian hori ez zen nire kasua. Horrenbeste esfortzu ondoren, gura diren emaitzak ez lortzeak ondoratu egiten zaitu askotan.

Emozionalki indartsua izatea ezinbestekoa da, edo ideiak oso argi izatea. Azken kasua da nirea. Gogoko dut atletismoa, eta zer emaitza lortzen ditudan kontutan izan gabe jarraituko dut. Hori bai, honelako lorpenek beti laguntzen dute indar gehiagorekin jarraitzera.

Atleta batek horrelakoak lortzen dituenen nor etortzen zaio burura?

Entrenatzaileak. Gure lanen eta emaitzen atzean entrenatzaileak daude. Hobetzen laguntzen gaituztenak dira, animatzen gaituztenak. Azken finean zorretan sentitzen zara beraiekin. Zure lanak bezain garrantzi handia du entrenatzaileenak. Horiek, emaitzak behar diren moduan iritelen ez direnean zuk beste sufritzen dute, edo poztu alderantziz denean. Anoetara egindako horrenbeste bidaien atzean ilusioa ere badago; benetan eskertzen diet.

Eta nola ez, familiakoez ere gogoratzen naiz. Emaitzak iritelen ez direneko nire umore txarrak jasan ondoren, ni beste pozten baitira emaitza onekin; edo, agian gehiago.

Anoetako marka (10,88), Arrasateko atleta batek inoiz modalitate horretan egin duen saltorik onena da.

Ez da marka ona. Baina garbi daukat emaitza hauen atzean Mojategi dagoela. Lehen ere, Iturripen, maila ona erakutsi izan du Arrasatek, baina Mojategi izateak asko lagundu du marken hobekuntzan.

Betidanik izan duzu atletismorako zaletasuna? Etxean norbaitek egin izan duen kirola da?

Txikitatik izan dut gogoko. Hala ere, Santamasetako krosetan parte hartu izanak bultzatu ninduen lehen aldiz Iturripera joan eta serioago hartzera. Agian, bertan hasi zen benetako zaletasuna.

Etxean ere, beti izan da zaletasuna, beste maila batetan izan



Oihane Urtzelai Mojategiko atletismo pistan.

JOSETXO ARANTZABAL

arren. Aitak gogoko du korrika egitea, eta hainbat herri krosetan hartzen du parte. Bestalde, osaba batek luzera jauzia egiten zuela jakin izan du.

Erraza da ikasketak eta kirola uztartzea?

Bigarren batxilergoan nabil, teknologikoan. Nik argi daukat gauza bat: antolatzen jakinda, kirola ez da inongo oztopo ikasketei dagokionez. Egia da ordu asko eskaini behar zaizkiola atletismoari, lehen esan bezala, oso kirol sakrifikatua da-eta. Baina batzuetan, preferentziak marka-

"Fernando Zufiria gabe Arrasateko atletismoa ez zen ezer izango. Konta ezinak dira Fernandok Anoetara egin dituen bidaiak"

tu behar dituzu bizitzan, eta nire kasuan argi daukat zeintzuk diren. Ikasketetan entrenamenduek eragina dutela ikustean, ordu kopurua jaitsi beharra proposatu beharko nuke, edo beste antolatzekeko modu bat pentsatu. Momentuz, biak ondo eraman ditzaket.

Noiz entrenatzen duzu eta nola-koak izaten dira entrenamenduak?

Entrenamenduak oso ezberdinak dira denboraldiko zein txapelketetan gauden kontutan izanda. Denboraldi hasieran lau egun

entrenatzen ditugu eta batez ere indar gorenean aritzen gara, pisuarekin. Denboraldi erdialdean, lau edo bost egunetan ibiltzen gara eta abiadura lantzen dugu; batez ere, karrera teknikoa. Orain, denboraldia amaituta, lasaiago gabilta, baina berriz ere hasi naiz indarra lantzen, kasu honetan salto hirukoitzean jarduteko.

Bizi daiteke atletismotik?

Ez. Espainia mailan oso jende gutxi bizi da atletismotik; eta, bizi diren gehienek bi lan dituzte. Oso adibide garbia da Naroa Agirre: bere maila kontutan izanda, atleta olinpikoa da baina, atletismoan eta aktore lanetan jardun beharra dauka. Atletismoa ez da beste kirol batzuk beste baloratzen. Joko Olinpikoak gertu daudenean gogoratzen gara atletismoa badagoela.

Zure modalitatean Euskadiko onena izatea lortu duzu; baina badaukazu oraindik hobetu beharreko alorrik?

Momentu honetan, sailkapenari ez diot gehiegi begiratzen. Markak dira nire lehenetasuna. Luzera jauzian zein salto hirukoitzean markak hobetzea dut helburu. Espainiako txapelketarako gutxieneko marka lortzea amets bat izango litzateke, baina, momentu honetan ez da nire lehenetasuna. Oso zaila ikusten dut Espainiako txapelketara joatea.

Entrenatzaileek ere zeresana izango dute lorpen guzti horietan, ez? Zein nabarmenduko zenuke?

Fernando Zufiria *Txufi* gabe atletismoa Arrasaten ez zen ezer izango. Kontaezinak dira Anoetara egin dituen bidaiak. Berarekin hasi nintzen eta bera dut erreferentzia. Orain Mikel Uribealzo hasi da ni entrenatzen. Luzera jauzian eta salto hirukoitzean dabil teknika irakasten. Hura gabe, ez nintzateke lortu dudak gutxieneko mailara helduko. Niri zuzenean horiek eragin didate, baina atzean dauden askoren lana kontutan hartu beharra dago ere bai.

Lore Mar eta Maialen Axpe taldekide dituzu eta haiek ere marka onak lortzen dabilta beraien modalitateetan. Atletismoaren maila nola ikusten duzu Arrasaten?

Oso maila ona lortzen dabil Arrasateko taldea; beharbada, gazte mailan nabarmenen. Euskadiko zein taldeko errekorrak, Euskadiko Txapelkunak, Krosetan garaileak, Espainiako txapelketarako sailkatuak... lorpen asko izan ditugu azkenaldian.

Etorkizunera begira jarrita, nola ikusten duzu?

Ez zait geroan pentsatzea gustatzen. Atletismoan jarraituko dut, hori argi daukat behintzat. Baina, ikasketek baldintzatuko didate zein mailatan entrenatzen jarraituko dudak, kanpora ikastera joan beharra badaukat, beste beste. Hala ere, ez dut alde batera utziko atletismoa, inola ere ez.

BERGARA

Areto futboleko partidu bikainak jokatu ziren zapatuan

BLAI EGINDA Kiroldegi barruan euriarengandik babestuta egin arren, izerdi patxetan amaitu zuten umeek

POZIK ETA ALAI Lagunekin jokatzeko gustuko dute Bergara, Antzuola eta Elgetako gaztetxoek

ARETO FUTBOLA Goizetik, bi txandatan banatuta, areto futboleko partiduak jokatu zituzten Labegaraietan

NEREA MENOR > BERGARA

Zapatu euritsua izan zen aurrekoa. Asko etxean goxo-goxo gelditu ziren bitartean, Debagoieneko gaztetxoak futbolean, saskibaloian, areto futbolean edota eskubaloian aritu ziren ibarrekiko kiroldegietan.

Aste honetan, aurrekoan Leintz bailarakoekin egin genuen bezala, Bergara, Antzuola eta Elgetako umeen kontuak azalduko ditugu. Areto futboleko partiduak jokatu zituzten Labegaraietako kiroldegian.

Hiru herrietako umeak hainbat taldetan banatu eta goizean goizetik jolasean aritu ziren. Iskanbila handia egon zen zapatuan, polikiroldegitik gora eta behera zenbiltzan umeak asko izan ziren. Argi ikusten da kirola egitea gogoko dutela eta biziki saiatzen direla.

Gogotsu lan eginez gero, urte batzuen buruan, kirolari bikainak izango dira gaztetxoak; eta zeinek daki, agian, txapelketa garrantzitsuetan parte hartuko dute etorkizunean.

LAGUNAK EGITEN

Mariaren Lagundia, Aranzadi, San Martin, Elgeta eta Antzuolako ikasleak elkarrekin jolasten dute Eskola Kiroleko ekintzetan. Ikasturte honetan zehar, irristaketa egingo dute, eskalada, igeriketa, piraguan ere arituko dira, eta boleibola nahiz herri kirolak praktikatu dituzte. Gehienetan taldeka jolasten dutenez, eskola askotariko umeak elkar ezagutzen dute zapatuetan.




Antzuola B. Kepa, Aiert, Jon, Gorka, Aimar, Naia, Josune, Irati, Junes eta Euken Karlos entrenatzailearekin.



San Martin B. Jonek, Kepak, Adrianek, Aitorrek, Unaik, Izarok eta Olatzek osatzen dute taldea.



San Martin D. Asier, Oualid, Urko, Martin, Irene, Oier eta Dani areto futbolean jolastu zuten zapatuan.



Antzuola D. Iñigo, Jon, Eñaut, Mauro, Una, Toheed, Ainize, Jone, Irati eta Nagore.

ZEIN DA GUSTUKUEN DUZUEN KIROLA?




Nagore Otadui eta Irati Gardoki
Antzuola C

Kiroldegian topatu genituen Nagore eta Irati. Kirol ezberdinen gainean aritu ginen berbetan. "Gure kirol gustukoena saskibaloia eta futbola dira. Errealak da gure taldea, jokalariek onak dituela pentsatzen dugu".



Unai Larrea eta Iñigo Aranburu
Antzuola C

Unairekin berbetan, eskalada gehien gustatzen zaion kirola dela aitortu zigun. Futbolari dagokionez euren gustuak argi laga zizkiguten, "Athletic-ekoak izan gara betidanik. San Mamesera joatea gustatuko litzaiguke".



Kepa Roije
San Martin A

Lagunekin jolasean harrapatu genuen Kepa eta kirolari buruz aritu ginen berarekin. "Gehien gustatzen zaidan kirola futbola da. Nire talde gustukoena Bartzelona da eta jokalarien artean Messi da niretzako onena".



Olatz Ruiz de Larreamendi
San Martin A

Areto futboleko partidua amaitu eta gero eskubaloian jolasten topatu genuen Olatz. Aurrekoei bezala, kirolari buruz galdetu genion. "Futbola eta pilota gustuko ditut. Onenak Prieto eta Barriola dira".



Naiara Fernandez
Antzuola B

Goizean goiz aurkitu genuen Naiara Bergarako kiroldegian. Bere txanda iritsi arte, aulkian eserita zegoen lagunekin eta eskubaloia oso gustuko duela aitortu zigun. "Eskuekin jolasten den kirola delako gustatzen zait".



David Berezibar
> Irakaslea

Eski estazioetako jende pila-ketatik aldentzea gogoko baduzu, mendiko isiltasun eta bakardadeaz gozatzea edo paisaiaren edertasunaz disfrutatzea, horretarako aukera ona da mendiko eskia edo trabesia. Gaitasun aldetik exigentzia handiko kirola izan arren, lasai-lasai ibiltzeko aukera ere ematen digu mendiko eskia. Hala ere, mendiko kirol guztietan bezalaxe, erabateko arriskurik ez da libratzen hau ere, baina arau batzuk kontuan izanik, disfrutatzeke moduko jarduera da.

TRABESIA SEGURURAKO AHOKUAK
Ikastaroa: trabesian serio has-teko asmoa izanez gero, ikastaro baten apuntatu.

Inoiz ez bakarrik: beti norbaitekin eskiatu, eski estazio batetik gora ez bada.

Ibilbidea ezagutu: nondik nora doan, zein arrisku egon daitezkeen aurreikusi.

Eguraldiaren berri izan: trabesiak irauten duen denboran eguraldiaz informatu, bai-



Mendiko isiltasun eta bakardadeaz gozatzea edo paisaiaren edertasunaz disfrutatzea ahalbidetzen du trabesiako eskia.

ARIZMENDI

ESKIA > BESTE AUKERA BATZUK

Mendiko eskia edo trabesia

ta aurreko egunetan egin duenaz ere.

Elur-jausien maila nolakoa den: elur-jausi arriskua dagoen ala ez informatu.

Materiala prestatu: aurreko egunean behar duzun material guztia prestatuta utzi.

Arropa egokia: mendian

eguraldia aldakorra izaten da, beraz, badaezpadako arropak hartuko ditugu.

Janaria: egun horretarako behar duzun janaria hartu, gehiago hartzea ez dago gaizki.

Eguna goiz hasi: mendian hobe da elur ona harrapatzeke goiz ibiltzea; eguerdi eta arratsal-

derako elurraren egoera aldatu baitaiteke arriskua gehituz.

Eskiatzen gaudenean: Elur-jausi arriskua dagoen tokietan bata bestearengandik 20-30 metro eskiatuko dugu.

Elur-jausi arriskua dagoen maldatan eskitik hankara doan uhala askatu egingo dugu, elur-

jausia izanez gero eskia erraz askatzeko.

Elur asko dagoenean inoiz ez gelditu jaisten ari den lagunaren azpian.

Eskiari eski-xafla jartzeko ez izan dudarik; gogorra dagoenean jarri eta listo, ez gerorako utzi.

MATERIALA

> ESKI TAULAK

Igotzea gogoko duenak: eski arinak eta trabesiarako espezifikokoak. Alde positiboa arintasuna da eta negatiboa, berriz, ezegonkortasuna jaistean.

Jaistea gogoko duenak: Free-rider erako eskia aukeratu hobe, taula zabalak eta aurrean zein atzean punta dutenak. Elur hautsetan atzetik ez dira blokeatzen, elur gogorretan egonkorra dira eta edozein elur motatan seguruak eta gozatzeko modukoak.

Eskiaren tamaina, norberaren altuera baino bost zentimetro behetik eta hamar gaintetik arteko taulak aukeratu; eski maila baxua dutenek txikiagoak. Bestalde, gehienetan pistan aritu behar bada eta noizean behin trabesian, "free-rider" erako taulak aukeratu.

> BOTAK

Trabesiarako izan behar dira, igotzeko eta jaisteko posizioa dutenak. Erosoak izan behar dira eta igotzean lotuta eraman (ez oso gogor) urradurak saihesteko.

> FINKAPEN EDO LOTURAK

trabesiarako espezifikokoak, batzuk pistakoen antzekoak dira (edozein

bota jar dezakezu) besteak arinak, bi piezakoak (bota espezifikokoak behar dira).

> FOKAK

Elurretan gora igotzeko balio dute eta ez dute uzten taula beheantzen irristatzen. Gaur egun "karbin" erako fokak ere badaude; gainera, neurrira ere egiten dituzte.

> ESKI-FLAXAK

Elur gogorretan gora igotzeko.

> BASTOIAK

Bi eratakoak: teleskopikoak, neurri ezberdinetara jar ditzakezu eta besteak pieza batekoak. Bigarrenak aholkatuko nituzke zurrungoak dira.

> MOTXILA

Eski taulak albo batean eramatekoak dutenak dira egokienak.

> PIOLETA ETA KRANPOIAK

ibilbidearen arabera eraman beharrekoak.

> ARVA, SONDA ETA PALA

Elur-jausietan harrapatutako jendea aurkitu eta ateratzeko balio dute. Erabiltzeko ikastaroa egitea komeni da. Arva eramanez gero, hobe telefono mugikorra itzalita eramatea, interferentziak saihesteko.

IBILBIDEAK

> SAN LORENTZO

Errioxan dagoen Valdezcarai eski estaziotik igotzen da. Dena pistatik gora igo daiteke, baina nahi izanez gero San Lorentzoren eskuma aldetik igo daiteke. Jaisteko zailtasunak dituztenendako aproposa da, pistatik behera jaitsi baitaiteke.

> MIDI DE BIGORRE

Frantzia, Luz de Sant Sauver herritik Super Barege eski estaziora igota. Estazioan utzi autoa eta ezkerretatik La Mongiera igotzeko dagoen azken teleaulkia baino lehen ezkerretara hartu. Goian meteorologia estazio bat bat dago. Jaitsiera leku beretik pistara heldu arte.

> KURTZEBARRIRI BUELTA

Aretxabaletatik Mendiola auzora igo, bertan autoa utzi, eta Peñakulu eta Elizabarri pasatuta, tontorrera helduko zara. Jaitsiera ezkerretatik Urkuluko Urbaltz aldera. Beheko zuloa heldu baino lehen, Arientza auzorantz hartu behar da.

Hilabeteko entrenamendu planifikazioa, Aste Santutarako topean egoteko

ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	EGUBAKOITZA	ZAPATUA	DOMEKA
Berotu Indar zirkuitua Buelta 1 30' korrika	Bizikletan 2 ordu	Berotu Indar zirkuitua Buelta 1 30' korrika	Bizikletan 2 ordu	ATSEDENA	Trabesia edo mendi buelta makilekin 2 ordu	TRABESIA
ATSEDENA	Berotu Indar zirkuitua 2 buelta 40' korrika	Bizikletan 2 ordu	Berotu Indar zirkuitua 2 buelta 40' korrika	ATSEDENA	Trabesia edo mendi buelta motxilarekin 2 ordu	TRABESIA
ATSEDENA	Berotu Indar zirkuitua 2 buelta 50' korrika	10' trote 4x1000 m tope 2-3' atsedena 10' trote	Berotu Indar zirkuitua Buelta 1 bizikleta 2 ordu	ATSEDENA	Trabesia edo mendi buelta makilekin 3 ordu	TRABESIA
ATSEDENA	Berotu Indar zirkuitua Buelta 1 30' korrika	10' trote 3x2000 m tope 4-5' atsedena 10' trote	Berotu Indar zirkuitua 2 buelta bizikleta 2 ordu	ATSEDENA	Trabesia edo mendi buelta motxilarekin 3 ordu	TRABESIA

OHARRA: Indar zirkuitua joan zen Asteleheneko Goienkaria-n agertzen dena. Igandetan trabesiarik ez balego lau bat orduko mendi buelta.

Datorren astean...

Eski denboraldi osasuntsua. | Eskia eta bere arriskuak. | Eskirako prestakuntza fisikoa eta entrenamenduak. | Eskiko lesioak eta berauek errehabilitazioa. | Pistaz kanpoko eskia. | **Mendiko eskia.**

ARIZMENDI 2.0 PROFESIONALAK
ikastola

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA



> **PUNK-ROCKA**
Motociclon eta Discipulos de Dionisos taldeek 3.60 aretoa bete zuten egubakoitzean > 30



> **'LILAS'**
Organic taldeak emakumea izan zuen hizpide Arrasaten, dantza eta antzerkia uztartuz > 31



> **SHARON STONER**
Oñatiko talde indartsuak '13 taupada' diskoa aurkeztu eta ikusleak txunditu egin zituen > 31



Oñatiko mutiko talde bat egubakoitzean Gaztelekuan egindako entseguan.

JOSETXO ARANTZABAL

Indartsu eta berrikuntzekin, gurekin dugu berriro 'Kantari'

Aurreko edizioan baino parte hartzaile gehiago dira aurtengoan; 863 ume eta 224 talde guztira

Blogak dira berrikuntzetako bat; horietan, entseguetan egindakoak ikusi ahalko dituzte

MIREN ARREGI > BERGARA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak, bigarren-
goz, Debagoieneko ume eta gazte-
txoak musikaren eta dantzaren
mundura erakartzeko ahalegina
egingo du, *Kantari* saioaren biga-
rren edizioa martxan ipiniz. Zor-
tzi eta hamabi urte bitarteko nes-
ka mutikoak dira parte hartuko
dutenak, eta urduritasunez, bai-
na biziki eta emozioz beterik Deba-
goieneko eskenatokietara igoko
direnak. Aurten, gainera, igo egin
da parte hartzaileen kopurua; hain
justu, duela urte biko edizioan

500 ume pasatxok hartu bazuten
parte, oraingoan, 863 ume eta gaz-
tetxo dira abestera eta dantzatze-
ra animatu direnak.

Horietako batzuekin izateko
aukera izan genuen egubakoitzean;
urduri eta era berean ilusioz
beterik aurkitu genituen Oñatiko
Herri eskolako neskek; entsegu-
tara abestia eta dantza ongi ika-
sita eroan zituzten. "Eskolan asma-
tu dugu dantza, aurreko edizioan
ere gutako batzuk parte hartu
genuen eta koreografia erakutsi
egin ziguten. Aurten guk asmatzea
erabaki dugu" zioten neskek. Esan

behar da, gainera, saioak duela bi
urte iritsi ez zen herri bateko ume-
en partaidetza ere izango duela
aurtengoan; Elgetakoa, hain justu.
Izan ere, aurten, lehenengoz,
Elgetako talde batek hartuko du
parte *Kantari* ikuskizunean.

863 ume eta gaztetxo horiek 224
taldetan daude banatuta. Horietatik,
71 dira Bergarakoak; 49 Oñati-
koak; 41 Arrasatekoak; 35 Aret-
xabaletoak; 15 Eskoriatzakoak;
seina Aramaio eta Antzuolakoak;
eta esan bezala, bakarra Elgeta-
koa. Debagoieneko lau herritan

grabatuko diren *Kantari* ikuski-
zunak, berriz, aurrekoan bezala,
Amaia Txintxurreta oñatiarrak
aurkeztuko ditu.

ABESTI ZAHAR ETA BERRIAK

Guztira 44 kantu abestuko dira
Kantari-ren bigarren edizioan.
Horietatik batzuk dira abesti zaha-
rrek eta beste batzuk duela gutxi-
koak; hori bai, guztiak euskaraz-
koak eta askotan entzun izan ditu-
gunak. Hala nola, Hertzainaken
Aitormena, Oskorriren *Furra*
furra, Sorotan Beleren *Arratsal-*

de honetan, Zaramaren *Iñaki*,
Latzenen *Laztana*, eta Gozategi,
Egan, Pirritx eta Porrotx, Itoiz edo-
ta Ken 7 taldeen abestiak, beste-
ak beste.

BERRIKUNTZA, BLOGAK

Aurtengo beste berrikuntzetako
bat da taldeko blog bat izango
dutela gaztetxoek. Blogean entse-
gu egunetan egiten diren bideo gra-
bazioak eta ateratako argazkiak
ikusgai ipiniko dituzte taldeek; eta
beraz, entseguetako irudiei begi-
ra etxetik entseatzeko aukera izan-
go dute gazteek.

ENTSEGUAK, HASITA

Esandako moduan, entseguak hasi
dira dagoeneko; hain justu, joan
den asteburuan. Hemendik eta
apirilaren 5era arte, gaztetxoak
entseguetan egongo dira eta ikus-
kizun grabatuak edota saioak api-
rilaren 25ean hasi eta ekainaren
7an amaituko dira.

Noiz grabatuko dira ikuskizunak?

HERRIA	TOKIA	DATA
Oñati	Gaztelekuan	Apirilak 25-26
Bergara	Jam aretoan	Maiatzak 1-2-3
Aretxabaleta	Arkupe kultura etxea	Maiatzak 9-10
Arrasate	Amaia Antzokia	Ekainak 6-7

MUSIKA > DISCIPULOS DE DIONISOS ETA MOTOCICLON

Rockak jarreran eta auzoetan bizirauten du

NON: Arrasateko 3.60 aretoa.
EGUNA: Egubakoitza, martxoak 6.
ZENBAT JENDE: 200 lagunetik gora.
IRAUPENA: Bi orduetik gora.
ESTILOA: Punk-rocka eta rocka.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Orain dela gutxi entzun nion Bilboko musika aditu bati rock-and-rollak arrakasta handia dauka gaur egun; horren erakusle aipatzen zuen arropa saltoki eza-gunetan estetika horretako gauzak saltzea eta rock taldeen kamisetak edonon aurkitzea.

Ni bilbotar hori baino ezko-rragoa naiz, baina egubakoitz gauean zur eta lur gelditu nintzen Arrasateko 3.60ra sartu nintzenean: kontzertu aretoa bete samar zegoen eta jendea rock-and-roll egarriz.

PORNO-PUNKA

Discipulos de Dionisos izan zen agertokira igo zen lehen taldea, 23:30ak aldera. Denbora luzea zen Arrasaten jotzen ez zutela eta igarri zen gogotsu etorri zirela. Juan abeslari eta gitarra jotzailea eta *Spartacus* baxu jotzailea dira aspaldidanik taldean jarraitzen dutenak, baina beste gitarra jotzailea eta bateria jotzailea ere etxeko lanak ondo eginda etorri ziren; oso irmo aritu ziren.

Porno-punka egiten du Discipulos de Dionisos taldeak, eta euren hastapenetan aukeraketa horregatik hainbat arazo izan zituzten arren -neska talde batzuek ez zituzten ulertu-, gaur



Motociclon taldeko Robertez abeslariak ikusleak gertu-gertu izan zituen emanaldi osoan.

JOSETXO ARANTZABAL

egun zale asko dituzte, eta horien artean neska asko, gainera. Hala gelditu zen agerian, esaterako, Arrasateko emanaldian.

Hala ere, argitu beharra dago kutsu pornografikoa duten hitzak direla guztiak (*Pintxos, Mi dedo en tu interior, Vuelvo a la prosti-*

tucion, Soldados del orgasmo eta abar), baina iraganeko *show-a* alboratu dutela. Salbuespen bakarra *Coca ardiendo sobre mi glande* kantuan egin zuten performance txikia.

Musika aldetik, oso gogor aritu ziren eta 45 minututan ez ziren

kasik gelditu: abesti guztiak jarraian jo zituzten. Punk-rock oso azkarra egiten dute, batzuetan erritmo zoroan eta beste batzuetan melodia puntu nabarmena gehituz. Are gehiago, ondo neurtutako makina dela erakutsi zuten: gitarrak zorrotz eta

erritmoa geldiezina. Tarte batzuetan, herrikide duten Señor No taldea ere gogora ekarri zidaten, abestien bukaera gitarrero estastikoetan. Oso sasoi onean daude, zalantza barik.

MOTOCICLON, AUZOKO IZAERA

Maila oso goian utzi zuten arren, bigarren taldea ez da erraz kikitzekoa: hain zuzen ere, Motociclon Vallekasko (Madril) taldea da, eta hori ez da txantxetan hartzekoa. Taldearen hastapenetan, heavyari parodia egiten zutela ematen zuen; eta hori uste genuen gutako askok. Euren esanetan, baina, Espainiako heavy autoktonoa maite dute betidanik.

Euskarak euskalkiak dituen moduan, gaztelarak ere baditu bereak; eta Motociclon taldekoek Vallekasko jargoia (jerga) daukate hizpide. Horri, taldekideen bizipenak batuta, hirietako auzoen soinu banda egiten dute: *El pico, Air guitar, Crapulismo, Maderos del rock, Truño muerto, La perfo* eta beste.

Emaizta zelakoa den? Ba, tar-teka Obus taldearen antzeko kantu heavy *castizo*-ak, hiriko rocka deritzone pareko eresiak, punk-rocka, ostia txarra eta jarrera makarra barra-barra.

Musikariak fin-fin, bakoitza bere lekuan, eta Robertez abeslaria ganberroa egiten eta ikusleekiko gertu-gertu. Bukaeran, opari moduan, La Banda Trape-
ra del Rioren *Curriqui de barrio* eta MCDren *Terrorista* punken aitona Figuerasek lagunduta.

MUSIKA > LOS VIERNES AL RON ETA KLAKSON

Itoizen gerizpea luzea da

NON: Eskoriatzako Cipris taberna.
EGUNA: Egubakoitza, martxoak 6.
ZENBAT JENDE: 50 lagun inguru.
IRAUPENA: Bi ordu eta erdi.

MIREN ARREGI > BERGARA

Eskoriatzako Cipris taberna izan zen egubakoitzean Antzuolako Los viernes al Ron eta Klakson taldeen eskenatoki. Gustura aritu ziren Klaksonekoak: "Halakoe-

tan beti esaten da gustura egon ginela eta askotan topikoa badi-rudi ere, hori da egubakoitzeko kontzertuaz esan dezakeguna; gustura egon ginen agertokian eta hori igarri egiten da" esan zigun Jon Gurutz Biteri taldekideak.

Los Viernes al Ron bakarlariek hartu zuen giroa berotzeko lana, hura hasi zen-eta emanaldiarekin. Egubakoitzean, baina, bakarlariek, perkusio jotzaile baten laguntza izan zuen. Lehen aldia izan zen, eta lan txukuna egin zuten, musika egiteko forma eta modu berriei atea irekiz.

Klakson taldea izan zen gaueko bigarren izarra. Taldeak 2006an kaleratu zuen bospasei abestiz osatzen zen maketa. "Orduan, baina, estiloa definitu barik genuen eta orain konposatu ditugun abestiek taldearen nortasuna hobeto adierazten dute" adierazi zigun Biterik. Itoiz taldearen kutsua du Klakson taldeak; horren adierazle, *Foisis Jauna* kantua abestu izana.



Antzuolako Klakson taldea argazkian.

JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasateko biolin jotzaileen kontzertua

Egubakoitz iluntzean Arrasateko Musika Eskolako biolin jotzaileek kontzertu dotorea egin zuten San Juan Bataiatzailearen elizan. Amaia Artzamendi, Eli Auzmendi eta Domentx Uzin irakasleek gidatuta, eskolako 18 ikaslek hainbat klasiko interpretatu zituzten banaka zein taldeka; lehenengok piano jotzaile batek lagunduta.

Interpretatu zituzten piezen artean musika klasikokoak izan ziren gehienak (Vivaldi, Händel...), baina baita euskaldunak ere.



Pilar Andres, Helena Golab eta Izaskun Santamaria dantzariak Amaia Udal Antzokiko agertokian.

JOSETXO ARANTZABAL.

DANTZA-ANTZERKIA > 'LILAS' IKUSKIZUNA

Dantzarekin, emakumeen aroak irudikatuz

NON: Arrasateko Amaia Udal Antzokian.
EGUNA: Zapatua, martxoak 7.
ZENBAT JENDE: 150 lagun inguru.
IRAUPENA: Ordu bete.

MIREN ARREGI > BERGARA

Lilaz, feminismoaren kolorez, jantzi zuten Arrasateko Amaia Udal Antzokia zapatuan, martxoaren 8ko Emakumeen Nazio-

arteko Egunaren harira egin zuten antzezlanean. Espiritu lilaz eta gorputz espresioa lehenetsiz, emakumearen bizitzako aroak irudikatu, antzeztu eta interpretatu zituzten *Lilas* antzezlanean hiru emakume protagonistek.

Dantza, mugimendua... izan ziren emanaldiaren ardatza, eta nerabezaroa, haurdunaldia eta menopausia garaia gai nagusiak. Inolaz ere, gorputz adierazpenari dagokionean bikain aritu ziren

antzezleak; hala ere, dantza bakoitzak adierazi gura zuena ulertzea ez zen hain erraza egiten momentu batzuetan. Errealaren eta abstraktuaren arteko soka finean dantzan aritu ziren antzezleak une askotan, ikuslearen artean harridura sortuz.

UMORE ALDAKETAK MUINA

Neurri gabeko barre algarak, bat-bateko umore aldaketak, norbera existentzia zalantzan ipintzen

duten galderak, emakumearen sentsualitatea... horiek eta gehiago izan ziren *Lilas* ikuskizunaren bilakaeraren oinarri. Eskenatokiarekin asko egin zuten jolas dantzari antzezleak, emakumearen konplexutasunak eta eskenatokiaren konposizioak bat egin gura izango balute bezala; hala, atmosferarekin eta giroarekin asko egin zuten jolas antzezleak. Dantza eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizunaren oina-

rri ukaezina gorputz adierazpena bazen ere, une askotan faltan botatzen ziren argumentua edota antzezlanean nondik norakoak garbi azalduko zituen elkarrikketa edo testu zatiak. Hala ere, ezin uka, antzezleak berba egin zuten une urriek argitzen zutela nolabait istorioaren ildoak.

Dena den, barre algarak gutxi izan ziren Amaia Antzokian. Umerez bai, baina algararik eragin barik garatu zen-eta saioa.

KRONIKA > TAURA ETA SHARON STONER

Stonerraren zentzua zabaltzeko lanean buru-belarri

NON: Arrasateko 3.60 aretoan.
EGUNA: Zapatua, martxoak 7.
IRAUPENA: Bi ordu eta erdi.
ESTILOA: Stoner eta rocka.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Kontzertu batera jende asko joateak ez du beti esan gura taldea ona denik; ezta alderantziz ere. Zapatuan halako zerbait gertatu zen. Oñatiko Sharon Stoner taldeak *13 taupada* diskoa aurkeztu zuen eta lagun Argentinako Taura taldea izan zuen.

Oso jende gutxi joan zen 3.60 aretora. Taura Argentinako rock gogorreko taldea da, eta lehenbiziko aldiz etorri ziren Euskal Herrira. Stonerra dute oinarri, baina tarteka (beste askok moduan) rockera eta are gehiago rock gogorrera eramaten dute euren eskaintza. Ez zuten bizitzako gau onena izan, eta segu-

ruenik horretan eragina izan zuen aretoan zegoen giro hotzak. Bitxikeri moduan, Yawning Man taldeak idatzitako eta Kyuss-ek ezagutzera emandako *Catamaran* kantua jo zuten.

PUNTA-PUNTAKO TALDEA

Giroa hotza bai, baina gogoa jarriz gero, oztoporik ez. Hala erabaki ei zuten Sharon Stoner taldekoek. Emanaldi irmoa egin zuten, oso indartsua eta ahulduririk gabekoa. Diskoa aurkeztu arren, kantu zaharretan oinarritu ziren batez ere.

Danbakaren lehenengo edizioan erakutsi zuten talde ahaltsua dela, baina maisuak bihurtu dira. Konposizio landuak, dotoretasuna, indarra... guztia daukate. Beste behin erakutsi ziguten stonerra uste baino zabalagoa dela: rocka, flamenkoa, jazz ukituak... Atzerriko beste talde askorekin lehiatzeko moduko taldea bilakatu da, handituz doana.



Argentinako Taura taldea izan zen Sharon Stoner ahaltsuen gonbidatua zapatu gauean.

JOSETXO ARANTZABAL

GURE TALDEAK...

Foxy Boxxi

"Batez ere sexuan oinarritutako kantuak idaztzi ditugu diskoan"

Arrasateko Foxy Boxxi taldeak lehen diskoa kaleratu du; euren kontura grabatu dute eta taldearen izena hartu dute izenburutzat

Dagoeneko diskoa salgai dago Arrasateko Iluntz eta Basati tabernetan; horrez gain, eurek egingo dituzten zuzenekoetan ere salduko dute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Maria Faganek, Aitor Etxagibelek, Oier Arregik eta Aitor Morenok osatzen dute Foxy Boxxi taldea. Euren kontura grabatu dute lehen diskoa eta taldearen izena hartu dute izenburutzat. Taldeko abeslari Faganekin egin dugu berba disko berriaren gainean.

Disko berria egin duzue. Nola-ko diskoa da? Gustura zaude te emaitzarekin?

Egia esan, ez gara oso gustura geratu emaitzarekin. Nahasketaren soinua ez zaigu batere gustatu, baina lehenengo maketa izateko nahiko ondo dagoela esan digute.

Orokorrean rock-and-rollean oinarritzen da. Ez diogu izenbururik jarri, baina hurrengo diskorako izena pentsatu dugu.

Diskoa zuen kontura grabatu duzue. Zergatik?

Diskoetxe batean grabatzeko dirua eduki behar da eta kontzertuetan ez da disko bat grabatzeko behar beste diru lortzen. Gainera, gutariko inor ez dabil lanean, ikasleak gara-eta.

Prozesu luzea izan da?

Grabazioa berez azkar egin genuen, baina nahasketak eta kopiak egiteak asko luzatu zuten maketaren aurkezpena. Pentsa, apirilean grabatutako diskoa urrian kaleratu genuen!

Zertan oinarritzen zarete hitzak idazteko orduan?

Normalean nik idazten ditut, baina kantu batzuetan taldekideen laguntza ere izan dut. Askotariko gaiak hartzen ditugu oinarri moduan; besteak beste, bizitza, maitasuna eta musika. Baina bereziki sexua da gai indartsuena gure kantu gehienetan.

Ezagutzen ez zaituztenedako, ze musika estilo lantzen duzue?

Orokorrean rock-and-rola, baina taldekide bakoitzaren eraginak kontuan hartzen ditugu. Gainera, azkenaldian funky ukiak sartzen ahalegindu gara.



Klasikoetatik ikasiz, berezko ukitua emanez

Gazteak gero eta lehenago hasten dira musika jotzen ikasten. Horren erakusle argia da Arrasateko Foxy Boxxi. Taldekideak 19 urteren bueltan dauden arren, dagoeneko diskoa daukate kalean eta kontzertu dotoreak ematen dituzte.

70eko hamarkadako (hard)rocka ezagutzen eta maite dutela erakutsi digute, eta hortik onena hartzen dute: Led Zeppelin, Thin Lizzy eta bestelakoak. Baina, ez dira azalean gelditu: rock-and-rolla, punk tanta eta bestelako ñabardurekin aberasten dute; eta Sonic Rendezvous Band eta Patti Smithen azarnak ere antzeman daitezke. Maria Faganek oso ahots ona dauka, eta musikariak fin dabilta instrumentuekin. Musika gustu ona izateaz gain, oso gogor datorren taldea da!

Iker Barandiaran

Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?

Guztiona, orokorrean, Led Zeppelin litzateke, baina nork bere estiloa dauka.

Ingelese abesten duzue.

Nire aita irlandarra da, eta euskararekin batera ingelesa ama hizkuntza daukat. Dena den, gehiago gustatzen zait ingelesez abestea, eta taldekideak ados daude.



Argazkian, Oier Arregi, Aitor Etxagibel, Maria Fagan eta Aitor Moreno.

FOXY BOXXI

Talde gaztea zarete, baina diskoa egin duzue eta Danbaka lehiaketan parte hartu duzue. Gazte izateko maila ona erakutsi duzue.

Hori diote. Pixkanaka mailaz igotzen ari gara eta horrek ere presio handia dakar guregan. Entzuleei onena eman behar zaie. Nik alderantzizko erreakzioa daukat, zenbat eta kontzertu gehiago orduan eta urduriago jartzen naiz.

Lehen diskoa izanik, nortzuegan heldu gura duzue?

Lehen diskoaren helburua taldea zabaltzea eta abestiak grabatzea zen. Musika egiten gozatu egiten dugu eta horretaz bizi izatea da gure ametsa, baina bada-kigu oso zaila dela. Lehenengo gauza taldea eta diskoa jendar-tean zabaltzea da, eta, bidez batez, ahal dugun pertsona gehienengan heldu gurako genuke.

Diskoa non eros daiteke?

Arrasateko Iluntz eta Basati tabernetan; eta gure kontzertuetan ere salduko dugu diskoa.

Eta bukatzeko, zergatik Foxy Boxxi izena?

Trivial delako jokoaren antzeko joko erotiko batetik hartu genuen izena Aitor Etxagibel taldekideak eta biok. 2006ko udan izan zen.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6, behe / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA eta GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

sudokua

4	6		2		8	9		
			9					
						8	5	
3	2			4				
1								9
				8			6	7
	7	5						
					3			
		3	6	1		2	4	

bila-bila 7




hitzez gidunak

	Irlandako hiriburua	▼	Hauskor	▼	Handikote eta baldarra	▼
	Zanbiako hiriburua		Presio		Suari dariona	
	... bat, inor	▶				
	Piztu, irazeki					
	Aterreak, irtenak	▶				
	Gutti, gutxi					
					Bokala	▶
					Kalika jokorako makila	
				▶		
			Ez eme			
						▶
					Kontso-nantea	

GOIENKARIA

soluzioak




A	E	D	A	V	A	U	N	I	P
R	N	B	A	P	I	L	H		
R	S	T	X	O	Z	S	E		
A	V	A	M	P	B	S	Z	U	
G	M	A	S	O	R	A	G	U	
I	O	L	O	L	O	I	N	X	
T	E	G	T						
L	S	A	Z	A	R	I	T	H	
A	U	P	A	T	P	U	D	R	

Hieroglifoa:
Premia.

hieroglifoa

Beharra.



hizki salda

Bost zuhaitz mota

D	R	U	P	A	T	P	U	A
H	A	R	I	T	Z	A	L	S
P	E	K	P	A	E	G	T	T
X	P	I	N	U	L	O	U	I
U	G	A	R	O	S	A	M	G
U	Z	S	B	P	I	M	A	A
E	S	Z	O	X	T	S	D	R
H	L	I	P	M	A	B	N	R
P	I	N	U	A	A	D	E	A

8	9	3	6	7	1	5	2	4
6	1	4	5	2	3	7	9	8
2	7	5	8	9	4	6	3	1
5	4	9	1	8	2	3	6	7
1	8	7	3	6	5	2	4	9
3	2	6	7	4	9	1	8	5
9	3	2	4	1	7	8	5	6
7	5	8	9	3	6	4	1	2
4	6	1	2	5	8	9	7	3

I	A	T	A	R	A	X	T	I
L	U	R	A	R	A	E		
L	R	A	U	R	O	R	K	U
K	I	O	D	N	I	X	T	
A		K	S	I	A	S	O	P
K		A	K	I	L	K	I	P
N		E	N	B	A	T	B	
A		K	A	V	S	L	U	
K		Z	D					

asteko horoskopoa

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Lehenagoko egoeretan murgildu eta egoera horiek kontrajartzeak emaitza onak ekarriko dizkizu. Zure helburuetako batzuk lortuko dituzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Aurreko egunetako ahaleginaren emaitzak gozaten hasiko zara, baina zain itzazu zure berbak, norbaitek txarto uler ditzake-eta. Lasaitu zaitez.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Edozerri aurre egiteko indarra duzu, zure sena eta ideia bikainak adieraziz. Zaindu zure handi-nahia, baina kontuz ibili eta ez egin gehiegikeriak.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Gorde itzazu zure asmoak lagunaren aurrean, adierazi nahi duzuna zer den ondo jakin arte. Atzerapena izango duzu zure egitasmoetan.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Jar itzazu praktikan ondo garatuta dituzun asmoak. Zure adimenak eta sortze ahalmek ahalegin handia eskatuko dizute, baina ez etxi, merezi du eta.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Analisirako eta hausnarketarako gaitasun handia duzunez, beldur guztiak uxatuko dituzu eta behar dituzun aldaketak egiteko pausoak emango dituzu.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Zure laguntzaileengandik espero zenituen emaitzekin, lasaitasuna eta baretasuna. Segurtasun inguru gehiago aurkituko dituzu horien artean.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Atsedena, hau da, relax unea, aprobetxa ezazu errekuuperatzeko. Unean unekoaz gozatu. Atsedena hartzeko bidai bat egiteko momentu egokia.

SAGITARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Zure bizitzako oinarri guztiak azkar aldatzen dabilta. Ez izan beldurrik, berrikuntza emankorra izango da zuretzako, nahiz eta erronka gogorak izan.

CAPRICORNIUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Zeure burua eta zeure itxura dira zeure ardura bakarrak. Orain ez zaizu beste ezer interesatzen. Nartzisismoak alde batera utzi eta eskaini denbora gehiago lagunei.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Zure karrerarako garrantzizkoak diren egitasmo eta erronkak gogotsu hartu beharko dituzun. Denborak aurrera egin ahala, emaitza onak emango dizkizute.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Ez izan harremanen beldur, horrela ere gauzak ikas daitezke. Gara itzazu antzerkirako zure dohainak eta praktikan jarri buruan dituzun asmo berriak.

gazte zerbitzua

BEKAK

> **Doktoretza.** Eusko Jaur-larritza. Ikertzaile bisitariak Glasgowko Unibertsitatean egonaldia egiteko beka bat. Epea: martxoaren 16a.

> **Mugikortasun Bekak.** La Caixa Fundazioa. Espainian Master Ikasketak egiteko Mugikortasun Bekak. Epea: apirilaren 1a.

> **Mendia.** Azpeitiko Udala. 2009ko Joxe Takolo Beka. Alpinismoari lotuta dauden maila oneko proiektu originalak bultzatzeko bekak. Epea: martxoaren 1etik 31ra.

LANA

> **Salbamendu, sorospen eta igeriketako begiralea.** Zumarragako Udala. Epea: Martxoaren 16a.

> **Begiraleak.** Ikastolen Elkartek euskarako eta ingeleseko udalekuetarako begiraleak behar ditu. Epea: Apirilaren 5a.

> **Sukaldari eta begiraleak.** Bertsozale elkartek uztaila eta iralerako antolatutako udalekuetarako sukaldariak eta begiraleak behar ditu. Informazio gehiago: 943 69 41 29 / 685 73 40 85.

> **Dinamizatzailea.** Arrasateko Udala. Emakume Txokorako dinamizatzailea behar da. Epea: martxoaren 13a.

> **Teknikoa.** Oñatiko Udalean Administrazio Bereziko teknikari-lanpostu bat (web master-artxibozain dokumentalista) betetzeko oposaketa-lehiaketa. Epea: martxoaren 13a.

LEHIAKETAK

> **Literatura.** Bergarako Udalak Koldo Eleizalde lehiaketaren 24. edizioa ipini du martxan. Parte-hartzaileek ipuin idatziak, bertsoak, komiki-tirak, ipuin kontatuak, antzerkiak, txistek eta umorezko pasadizoak aurkeztu ahal izango dituzte. Epea: Apirilaren 22a.

> **Film Laburrak.** Arrasateko Udalak emakumeen aurkako biolentzia salatzen Labur-Laburrak lehiaketa antolatu du. Epea: ekainaren 22a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEAK:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEAK:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 9



> **Komite Internazionalistak 'Magazinea'-n**
19:45

Txomin Madinak zuzentzen duen elkarrekin gainera Komite Internazionalistak taldeko kide bi izango dira, gaur.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Erlo klip.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Arte irekia: Xabina Larralde.
- 15:45 Erreportajea.
- 16:15 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Wasemak
- 18:15 Musikantoi
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 3. Sahara krosa.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Harmailatik.
- 23:00 Erreportajea.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 10



> **'Miserableak' emanaldiko kide bat GOITB-n**
19:45

Datorren asteburuaran Bergaran egingo duten *Miserableak* emanaldiaz berba egiteko, parte hartzaile bat *Magazinea*-n.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Ikusten: Lamien artean.
- 14:15 Eltze beroa: Bonito platera.
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Harmailatik.
- 15:50 Solaskide.
- 16:20 Ertoklip.
- 16:45 Berriak.
- 17:10 Marrazki bizidunak.
- 17:35 Erreportajea.
- 18:05 Harmailatik.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Wazemak.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Ilunpean: Andu Lertxundi
- 23:00 Mugaz kanpo: Iparragirre.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 11



> **ETEOKO irakasle Josu Lizarralde 'Magazinea'-n**
19:45

Josu Lizarralde botatzen diren elikagaiak aprobetxatzeko sortutako proiektu pilotu baten gainean berba egingo du.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Ikusmira.
- 14:15 Gure saltsan
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Ilunpean.
- 15:50 Golb tb.
- 16:20 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Solaskide.
- 18:15 Ur eta lur.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Zaharrak berri.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Erreportajea: Garun paralisidun pertsonak
- 22:45 Euskal herria lau haizetara.
- 23:15 Goiena Magazinea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 12




> **Euskal musika protagonista 'Musikantoi'-n**
20:45

Maidar Arregiren eskutik, euskal musikariak protagonista oraingo asteko *Musikantoi* saioan. 20.45ean izango da hori.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Euskal herria lau haizetara.
- 14:15 Eltze beroa
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ikusmira.
- 15:45 Ikuskizuna.
- 16:15 Zaharrak berri.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Erreportajea.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Musikantoi.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Berbaire.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 13



> **Kultur hitzorduak Jon Berezibarrekin**
21:47

Goiena Magazinea-n, asteburuko kultur hitzorduak errepasatzen dituzte egubakoitzero Jon berezibarrekin.

- 13:15 Marrazki bizidunak: Muka Muka.
- 13:45 Ur eta lur.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 16:15 Ikusten.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Ilunpean.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:30 Gure saltsan.
- 21:00 Goiena Magazinea.
- 21:45 Solaskide.
- 22:15 Danbaka.
- 23:15 Goiena Magazinea.
- 23:45 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> **Antzerkirako eta kontzerturako sarrerak**
10:30

Kontzertura eta antzerkira joateko sarrerak zozketatuko dituzte Arrasate Irratian datorren astean. Batetik, 3.60 aretoan Electric Riders, Captain Nemo, eta T-Sex taldeek martxoaren 13an egingo duten kontzerturako sarrerak, eta bestetik, *Nora zoaz Txanogorri-txo?* antzezlenerako sarrerak ere zozketatuko dituzte.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kiroiak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusienak)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepaso (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* edo *goiena.net* atarian, irratiko bloga))
11:55 Arrasateko albistek, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

telealbistek

TELEBISTA > ETB-KO AUDIENTZIAK

'El conquistador del fin del mundo' saiorik ikusienetarikoa

Lehendakari gaien mahai-ingurua eta 'Vaya Semanita' ere ikusienak

ETB1-en, 'Goenkale', 'Mihiluze' edo 'Oh Happy Day' dira ikusienak

MIREN ARREGI > BERGARA
El Conquistador del fin del mundo, lehendakari gaien hauteskunde mahai-ingurua, *Vaya Semanita* eta albistegiak izan dira ETB-n otsaileko saiorik ikusienak, audientziak neurtzen dituen Sofres agentziaren arabera. Albistegiei dagokienean, Teleberrik %19,8ko audientzia du

batz beste, 141.000 ikus-entzuleekin. Dena dela, hauteskunde kanpaina da otsailean jakin-min handiena sortu duen saioa; izan ere, lehendakari gaien debatea, 559.000 ikus-entzulek jarraitu zuten uneren batean. Eztabaidak %18,9ko audientzia eskuratu zuen, batz besteko 173.000 ikus-entzuleekin, hain zuzen ere.

Bestalde, *El Conquistador del fin del mundo* saioa ere arreta handiz jarraitu dute ikusleek otsailean; izan ere, %18,6ko audientzia du astelehenetan ematen duten saioak.

'OH HAPPY' DAY ERE IKUSIENA
Euskal Telebistaren euskarazko katean, *Goenkale* telesaila gailentzen da euskaldunen artean, %14ko audientzia zatia lortuz. Horrenbeste urtez eskaintzen

diharduen telesailak badirudi ez dituela oraindik ere jarraitzaileak aise galtzen eta Euskal Telebistako saiorik ikusienetarikoa bat jarraitzen du izaten.

Goenkale telesailaren ostean dago audientziari dagokionez *Mihiluze* saioa, %11ko audientziarekin; eta ondoren datoz *Errazu* eta *Oh Happy Day* %9,3ko eta %9,9ko audientzia zatiarekin, hurrenez hurren.

OÑATIARRAK BIKAIN
Gogoratu behar da bestetik, Klaudio Landak aurkezten duen *Oh Happy Day* abesbatzen lehiaketan, Oñatiko Ganbara Gazte Abesbatzako neska-mutikoak lan bikaina egiten dihardutela. Aitor Biainek zuzentzen duen abesbatza oñatiarra ari da bai zeresana ematen saioan.

TELE 5 KATEA

Audientzia txikiena izan duen hilabetea

M.A > BERGARA
Garbi dago telebistei dagokienean audientziak hilabete batek bestera aldaketak izan ditzaketela; eta kasu honetan, urtetan zehar audientzian lidera izan den Tele 5 kateak historiako audientzia daturik baxuenak eskuratu zituen otsailean.

Hain zuzen ere, Tele 5 katea telebistatik ikusienaren rangelan laugarren postura jaitsi da audientziaren %14,9ko zatiarekin. Horiek horrela, sarean dagoeneko hasi dira jaitziera horien gaineko iritziak, eta Paolo Vasile Tele 5 kateko zuzendariak dimisioa aurkeztu beharko zukeen ala ez ere galdetu dute.

zorion agurrak



BERGARA

Unax Murgizu Rodriguez
Otsailaren 29an, 2 urte. Zorionak etxeko partetik; bereziki Hodeiren eta Iraiaren partetik.



BERGARA

Unai Calleja Andonegui
Martxoaren 3an. Zorionak! Anartz, Maite eta familia guztiaren partetik!



OÑATI

Maider Barrena Lete
Martxoaren 4an, 8 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat, etxeko partetik.



OÑATI

Jose Antonio Guzman
Martxoaren 5ean, 40 urte. Zorionak *Kotxan!* Zure Oñatiko lagun partetik.



ARRASATE

Junkal Garai
Martxoaren 5ean. Zorionak, Junki! Zure lagun sorginen partetik, ondo pasatu zure egunean!



ANTZUOLA

Ekhi Larrañaga eta Aitziber Goñi
Martxoaren 5ean, Ekhi 2 urte; eta martxoaren 9an, Aitziberrek, 31. Zorionak, bioi, etxeko guztien partetik!



ARRASATE

Ainhoa Otaduy
Martxoaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna.



ARRASATE

Javier
Martxoaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak *Txuspis-* en partetik.



OÑATI

Maribel Mendibaso
Martxoaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak Arrasateko familiaren partetik.




OÑATI

Leire Fernandez Kortabarria
Martxoaren 6an, 25 urte. Zorionak lagun partetik, eta 25 patxo handi!



OÑATI

Kepa Txintxurreta
Martxoaren 6an, 5 urte. Gure mutiko handiari, zorionak eta patxo handi bat, familiaren partetik.



OÑATI

Julen Arrazola Maiztegi
Martxoaren 6an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat!



OÑATI

Angel Etxeberria
Martxoaren 6an, 76 urte. Mila patxo eta zorion gure aitaitza kuttunarentzat, zure bilobaten partetik. Jonas, Ekain, Oihan, Eider, Añes eta Nora. Urte askotarako!



ARRASATE

Tomasa Barrutiabengoa
Martxoaren 7an. Zorionak, amama, eta urte askotarako!



ARRASATE

Jabi eta Raket
Martxoaren 7an. Zorionak, bikote! Urtebetetzeak ospatzeko afari-pandi parranda egingo dugun guztien partetik, patxo handi bat.



ANTZUOLA

Nagore Barandiaran
Martxoaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, poxpolin! Mila patxo zuretako egun handi honetan, amatxoren eta aitaxoren partetik.



ARRASATE

Maria Maffei
Martxoaren 7an, 3 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik.



ARRASATE

Aratz Casado
Martxoaren 8an, 3 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik.



BERGARA

Maddi Alberdi
Martxoaren 8an, 12 urte. Zorionak, Maddi. Maria, Nora, Garazi B. eta Olatz B.-ren partetik ondo pasatu.



OÑATI

Eneritz Osinaga Osinaga
Martxoaren 8an, 6 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu. Besarkada eta patxo handi bat, etxeko partetik.



BERGARA

Elizabet Rodriguez Irizar
Martxoaren 8an, 8 urte. Zorionak etxeko partetik eta patxo handi bat.



OÑATI

Haizea Urrestarazu
Martxoaren 9an, 8 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure 8. urtebetetzean eta mila patxo, etxeko guztien partetik!



BERGARA

Maitane Urkiola
Martxoaren 11n, 8 urte. Zorionak, potxola, etxeko partetik.



OÑATI

Marieli Irizar Enparantza
Martxoaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, amama! Oso ondo pasatu zure egunean. Markel, Iñaki, Oihan eta Oier.



OÑATI

Unai Guridi
Martxoaren 11n, 12 urte beteko ditu. Zorionak eta patxo asko familia guztiaren partetik, batez ere Haizearen partetik.



BERGARA

Maddi Larrañaga Mateos
Martxoaren 11n, 5 urte. Zorionak, polita. Patxo handi bat Naiararen partetik.



BERGARA

Uxue Azkarate
Martxoaren 12an, 5 urte. Urte askotarako etxeko partetik; bereziki, Ane ahizparen partetik.



OÑATI

Manex Guridi Egaña
Martxoaren 15ean, 3 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat Leireren partetik!



ARETXABALETA

Maialen Gonzalez de Martin
Martxoaren 9an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak. Belarritik tirakada bat eta patxo handi bat familia guztiaren partetik, batez ere Leireren eta Hodeiren partetik.



BERGARA

Olaia Arriola
Martxoaren 10ean, 7 urte betetzen ditu. Zorionak, Arrasate! Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo!



BERGARA

Olaia Arriola
Martxoaren 10ean, 7 urte betetzen ditu. Zorionak etxeko partetik.



BERGARA

Markel Perez
Otsailaren 5ean, 5 urte betetzen ditu. Zorionak etxeko partetik.



ARETXABALETA

Sandra Giletto
Martxoaren 11n, 18 urte betetzen ditu. Zorionak, potxola! Patxo handi bat, familiaren partetik.



OÑATI

Kattin Malbadi eta Ainhoa Ugarte
Martxoaren 11n urtebetetzea. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunian. Gertu euki txokolata eta tartia. Muxuak.



OÑATI

Nagore Moiu
Martxoaren 11n, 34 urte. Zorionak eta urte askotarako. Patxo handi bat familia guztiaren partetik eta ondo pasatu zure egunian.



BERGARA

Julen Arriola
Martxoaren 12an, 7 urte. Zorionak etxeko partetik; bereziki Anerren partetik. Segi hain txintxo.



BERGARA

Julen Arriola
Martxoaren 12an, 7 urte betetzen ditu. Zorionak, Arrasate! Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo!



ARETXABALETA

Pepi Rosado
Martxoaren 13an, 53 urte betetzen ditu. Zorionak, Pepi! Ondo pasau, eta badakitzu kafetxuan zain egongo garela. Patxo pilua. Lanekuak.



ARETXABALETA

Eider Aranegi Leturiaga
Martxoaren 14an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak, potxola! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo eta besarkada potolo bat familia guztiaren partetik.



ARRASATE

Maider Olabarria Iturbe
Martxoaren 14an urtebetetzea. Zorionak, Maider! Ondo pasatu zure 3 urtebetetzean.



ARRASATE

Irati Hernandez Iturbe
Martxoaren 27an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, maitia! Patxo handi bat aitaxoren, amatxoren eta familiako partetik.

kuxkuxeroa



Miren Arregi

Emakume baserritarrak herrixan eredu

Hamar urte izango nittuen lehenengo Bergaran eta gerora Donostiako Victoria Eugenia Bergarako herritar talde bat *Les Misérables* antzezlanaren ikusi nebenian. Aho zabalik itxi ninduen emanaldixak. **Victor Hugo** bera be zur eta lur geldituko zalako dudarik ez dot itten, XIX. mendian idatzi zan nobela ezagunenak munduan zihar zenbat eta zenbat teatro eta agertoki arrakastaz bete dituden jakittera ailauko balitz. Hamabost urte pasau dia, eta berriz emungo daue aukeria bergarrek **Fantine, Javert,**

Emakume baserritarrak omendu gura dittut hemendik; euren lana goraipatuz

Jean Valjean edota **Colette** personajien gora beherak ikusteko. Zorionak eta zorte on, ez da-eta lan makala martxan ipini dozuena!

Martxoaren 8xak emun dittu berriak gurian be. Arrasateko emakumezkuen takarraran lasterketan 50 emakumetik gorak hartu ebein parte. Horrein artian eta lehenengo postuetan gainera, **Yolanda Perez de Arenaza**. Eta zela ez, ezin aittatu barik itxi emakumien nazioarteko eguna izan ala ez, urte mordua herritarrei baserriko produktuak saltzen pasau ditudzen emakume baserritarrak; han zian atzokuan be, **Ikutixoko Maria Arana, Uribarriko Jone Bergaretxe** eta Bedoñako **Bidasoro** baserriko **Kontxita Berezibar**; aittatu ez ditudtenei be zorionak!

asteburuko albuma



Leintz Udal Euskaltegikoak sagardotegian. Aurten ere, Leintz Udal Euskaltegiko ikasleak eta irakasleak sagardotegira joan dira. Hain justu, Legorreta aldera joan ziren txotx egitera, eta sagardotegiko menu tipikoa dastatuz, kantuan eta betiere euskara ahoan, gozatzeko aukera bikaina izan zuten. Jakinarazi digutenez, giro ederra egon zen gau osoan zehar: "Nahiko barre eta kantu eginda, datorren urtean ere irteera errepikatzen gogoz etorri ginen bueltan". Parrandari jarraipena ere eman zioten Aretxabaletan bertan.

jaiotakoak



Maria Almeida Monteiro

Bergara > 2,900 kilo. Martxoaren 2an. Gurasoak: Anabela (Portugal) eta Adeliino (Portugal). Argazkian, Maria jaioberria, sehaskan lo.



Eki Agirre Santin

Eibar > 4,120 kilo. Martxoaren 1ean. Gurasoak: Josune (Eibar) eta Mikel (Eibar). Argazkian, Eki jaioberria, sehaskan lo.



Nora Gisasola

Arrasate > 3,520 kilo. Martxoaren 1ean. Gurasoak: Maite (Orio) eta Gorka (Bergara). Argazkian, Nora jaioberria, sehaskan lo.



Beñat Zugasti Herrero

Eskoriatza > 3,320 kilo. Martxoaren 4an. Gurasoak: Larraitz (Arrasate) eta Txusti (Eskoriatza). Argazkian, Beñat jaioberria, sehaskan lo.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkari batara.

Eskelaren prezioa: 110 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150 euro.**

Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).



ESKELA

Adelina Usabiaga Guisasola

*Gure bihotzean
beti eramango zaitugu.
Ez zaitugu ahaztuko.*



Zure ilobak: Unai, Iñigo, Jone, Garazi eta Aitor.
Bergaran, 2009ko martxoaren 9an.

ESKELA

Adelina Usabiaga Guisasola

Bergaran hil zen 2009ko martxoaren 8an, 56 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, astelehena, martxoak 9, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

Jox Berasategi > Aktorea

"Euskara hobetu nuen 'Goenkale'-ko gidoiekin"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Madriren Estatu mailako hainbat telesail ezagunetan ibili ostean, Euskal Herrian bueltan da Jox Berasategi. Geldiune momentuan dagoela dio, paper berrien zain, telefonoa beti eskura, badaezpada ere.

"Ama, aktore izan nahi dut!". Hori nola hartu zuten zuen etxean?

Ba, nire kasuan ez zen oso traumatikoa izan, beste batzuek esaten duten moduan. Txikitatik hasi nintzen antzerkian izaba Lurdes Iriondok animatuta, eta nire familiarentzat gertukoa izan da beti artisten mundua.

Eta, damutu zara sekula?

Orain nagoen moduko unean -batere lanik ez dut orain, ez didate deitzen-, bai. Beste zerbait ikas nezakeela pentsatzen dut, ze nik egiten dakidan bakarra antzeztea da-eta.

Txapas gaintetik kentzea lortu duzu?

Oso esker onekoa naiz *Goenkale*-n egindako *Txapas*-en pape-rarekin. Orain ere jendeak kale-

an geratu eta *Txapas* deitzen dit, eta hori oso polita da. Hala ere, ez da lehen moduan. Behin, 100 pertsonako ilara bat izan nuen sinatzeko zain.

Goenkale-n hitanozko esaldi konplikatu horiek ikasten nahiko lan, ezta?

Nik asko disfrutatzen nuen. Egia esan behar badut, *Goenkale*-ko gidoiekin asko hobetu nuen euskara. Guk beti lagun artean hika egiten genuen, baina aditzak ondo erabiltzen *Goenkale*-n ikasi nuen.

TEST-A

Herria: Urnieta. **Adina:** 43 urte. **Ikasketak:** Antzerkia Donostian eta William Leytonen eskolan Madriren. **Zaletasunak:** Mendia asko gustatzen zait. Orain, tentsio arazoak izan eta gero ezin ditut aldats gogorrak igo, baina Arrasatera etorri eta Udaltxekin txundituta geratu naiz. **Antzeztu aurreko maniarik?** Bat ere ez. Oso sakon prestatzen ditut gidoiak, ez dut inprobisatzen. **Famagustuko?** Beti hartu izan naute maitasunez.

Paperak fundamentuz prestatzen dituzten horietakoa zara?

Bai, oso metodikoa naiz eta garrantzia handia ematen diot testua sakon lantzeari. Inprobisatzeari, normalean, ez diot tar-te askorik uzten.

Gogorra da Madriren casting-ik casting ibiltzea?

Niri, normalean, zuzenean deitu didate, baina beti bigarren mailako paperak egin izan ditut. Sekula ere ez zait tokatu *casting* arraro horietako bat.

Beti jartzen dizkizute gogor plantak egiteko paperak, ala?

Bai, egia da. Nire itxuraren-gatik izango da, aurpegiarengatik edo ahotsarengatik. Hori ezin da aldatu, baina gaiztoarena egi-tea beti izaten da dibertigarria.

Krisia eta aktore izatea beti bat dira, ez?

Zorte handirik ez baduzu, behintzat, bai. Orain lanik ez dut eta gogorra da, ez dakit zergatik ez didaten deitzen, ematen baitu lana badagoela. Beti nago telefono deiarene zain.



'ILUNPEAN' Solaskide izan dugu aste honetan Berasategi.

JON BEREZIBAR

ai, ene!



Bazkaria bero jateko

Bazkaria non berotu ez dakizula? Amaitu dira buruhausteak! Janaria berotzen duen USB poltsarekin ez dituzu arazo horiek izango: zure bazkaria 60 gradutan mantenduko da USB poltsa ordenagailura konektatuz gero.

<http://www.geekno.com>

biharamuna

Marijo Deogracias


Parekidetasuna botereguneetan!

Pastora taldea ezagutu genuen orain urte batzuk *No me llames Dolores llámame Lola* abestiarekin. Zapatu gauean doinu horren aitzakian koadrilako lagunetakoa bat kantuan aritu zen: "No me llames Francisco llámame Patxi, vas a ser lehendakari con los votos del PP; Patxi, Patxi". Barre ederrak bota genituen! Garagardo batzuk generamatzen ordurako, ze, hotzean pentsatuta **Basagoiti** and **Lopez** ez da bikote komikoa. Baina hala da. **Larreinar**en kaltetan PSEk 25. eserlekua lortu du eta dagoeneko **Rosaren** premiariak ez duenez, akreditatzera joan-

go dira sozialistak berehalakoan Legebiltzarrean. Hortik aurrera zer? Patxi lehendakari, **Urkulluk** telebistan lasai itxura erakutsi arren. **Ibarretzek** gainera oposizio buru izatea onartu beharko luke Legebiltzarrean, EAJK etxera baldintzen duela aditzera eman barik. **Izaskun Bilbao** ez da izango Legebiltzarreko presidente eta itxura guztien arabera gizonezko batek hartuko du kargua. Gizonak beti botereguneetan. 44 legebiltzarkide emakume izan dira orain arte, aurreratzean, 34. Eta bozeramaile bakarra, antza, emakumea: **Aintzane Ezenarro**.



eguraldia



MAXIMOA

+13

MINIMOA

+05

Hasieran zerua estalita egongo da oraindik eta euri arina egingo du, baina egurditik aurrera egoerak hobetzera egingo du.

www.euskalmet.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (2 sms)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**
Askatasun egarritz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begi okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermín Muguruza) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Be-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itoiz) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Ilargia (Ken7) | **KEN**
Inperuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaixo (Urtz) | **KAIKO**
Lau Teiletu (Itoiz) | **ITOIZLAU**
Laztana (Lazten) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loretxoa (EXKIXU) | **LORE**
Marea Gora (Itoiz) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**

No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**
Salve (La Polla) | **SALVE**
Sari Sari (Kortatu) | **SARRI**
Sorginen Iezean (Exkixu) | **SORGIN**
Txabro (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Polla) | **TXUS**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Beki) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakezaleak (Añje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maitte (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**
Eperrak (Añje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Osakom) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Osakom) | **EUSKALDUN**

Ez da posible (Ruper Ordoñal) | **POSIBLE**
Furra Furra (Osakom) | **FURRA**
Galziera noa (Osakom) | **GALZIERA**
Gemikako Arbola (Gortzal Mendibil) | **GERNIKAI**
Haika Mutul (Mikel Laboa) | **HAIKA**
Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantxo/Peki) | **LEPOAN**
Marnelaren zai (Sorotan Beki) | **MARINE**
Nere herriko neska maitte (B Lertxundi) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Urteagari) | **NON**
O! Ama Euskal Herria (B Lertxundi) | **OIAMA**
Tirauki (Osakom) | **TIRA**
Txabamatzalindatu (Mikel Urteagari) | **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maitte duzun hori (Ruper Ordoñal) | **ZAINDU**

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

LOGOAK (2 sms)
KODEA

ZINEMA	AIZKORAK
GLOBUAK	EGUZKILOREZ
NIREKIN	SORGINGA

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaisiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaratutako: 900 84 02 00 telefonoa. / ** Vodafone: deitu 123-za. / *** Movistar: deitu 603-za.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonoa.
4. **PERSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzaizkegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura ezin izan behar duzute, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.